

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. *Goierriko euskaldunon aldizkaria.* 6. zenbakia/ 1990ko maiatza/ekaina. 175 pzta.

ALE BEREXIA!

GARAI BATEKO GOIERRIKOAK:

BERTSO GANBARA HUSTU-EZINA ZALDIBIAN.
ERREMINTA ETA KIRTEA, PELLO HILDA GERO ERE,
E.A.



IXABEL OLANO ANDEREÑOAREKIN
SEGURTASUN INDARRAK HEMEN, OZONO GERUZAN ZULOA, AGENDA ESTUA,
APARTEKO ORDUAK,
MENDIZ-MENDI, MAIZPIDEN BESTE UDA BATEZ,
KOLABORAZIOAK, DENBORAPASAK, TXISTE ETA BESTE... **GAUR-GAURKOAK**



Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Si quieres un buen plan cuenta con la Caja.

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

**AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

1990ko maiatza-ekaina

Argitaratzailea: «Goierritarrak» Kultur Elkartea (Legalizatua). Dorre-etxea, behe (Correos azpia), alhondiga, 3. loka. Tfna; 889612. 124 posta kutxa, Ordizia.

Orain arteko Udal-Herri laguntzailerak (dirulaguntza eman eta, eman ez badigute ere agindu, agindu digutenak): Beasain, Idiazabal, Olaberria, Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Gaintza, Zaldibia, Arama, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Segura.

Erredakzioa: Josune Agirre (publizitate arduraduna), Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga.

Aholkulariak: Tere Irastortza eta Andoni Sarriegi.

Emaketazioa: Goierritarrok

Ale honetan kolaboratu dute: Ramon Ugalde, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Mikel Aramendi, Aitor Zugasti, Koldo Zubeldia, Erramun Irastortza, Garbiñe eta Elixabet Ezkurdia, Lutxi Ganzarain, M. Ormazabal, M. J. Etxeberria, J.M. Ormazabal, Maite Erauskin, Ion Imanol Iturrioz, Imanol Arzamendi, Ateari, Lurdes Amundarain, Martin Auzmendi, Joxe Madariaga, inkestatu eta berriemaileak, Aran, Josune eta Lorea Agirre, Xabier Narbarte, Patxi Zubizarreta, Murumendiko Damak...

Gure eskerrik beroenak: Era batera edo bestera laguntzen diguzuenoi, bai eta aldizkariaren saltzaileei, beharrezkoa dugun publizitatea eskaintzen diguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenoi.

Gure eskerrik txarrenak: Horienak ere esan beharrekoak?!

Fotokonposizioa: ANTZA
Inprimategia: GERTU
Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Era guztietako laguntzaren beharrea gaudela: distribuziorako, emaketatzeko, idatzeko... Irakurle: zure laguntzarik onena, suskribitu zaitez, har ezazu GOIERRITARRA etxean lehenbaitlehen.

GAUR EDO BIHARKO

KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.

**EROS, IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRITARRA**

KOLABORAZIORAKO DEIA

Goierriko herri guztietako kolaboratzaileen beharrea aurkitzen gara. Herri bakoitzeko hileko kronikak, berriak, balorapenak eta beste-lakoak gustora hartuko genituzke, eta bere txokoa emango litzaieke idazlari, erredakzio lanetan ari garenok ez bait gara iristen Goierriko oso gauzak biltzeko orduan.

Dei hau kontutan hartua izango denaren esperantza dugu: **Aldizkariaren maiztasuna ezezik bere biziraupena ere arriskuan dago.**

Era berean, Udaletxe, Elkarte eta jendeari orohar Goierriko eta bertako

Euskal Kultura eta gauzeekin zer ikusirik duten materialeak (klase guztietako argitalpenak edo kopiak) eskatzen dizkizuegu lerro hauetatik, artxibo bat osatu nahi bait dugu. Argitaratzea merezi dutenak ere egongo dira ziurrenik.


Baita ere kolaborazio literarioak, elkarrizketak, erreportaiak, aholkuak, abisu eta argibideak, iritzi, sormen eta arte inguruko lanak, argazkiak... benetan eskertuko genituzke.

Ordiziako 124 posta kutxara bidal ditzakezue edota gurekin kontaktoan jarri: 889612 tfna.

Etxe honetako ateak ez dira isten, parez pare, aldenikalde ditugu zabalik parte hartu nahi izanez gero.



SUSKRIBITU ZAITEZ!



**Urtebeteko
harpidetza
saria
1500 pzta.**



124 posta kutxa. Ordizia

«GOIERRITARRA» ETXEAN JASO NAHI DUT

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA..... Aurrezki Kutxa

Kontu Korrontearen Zb. TLF.....

DIRUSARRERAK: GK: 01*1.427.276-8

Lankide Aurrezkiak: 0540030002 Ordizia

ALTZAGA: —Artea Elkarte.

Herriko Plaza.

ATAUN: Ataun Kirol Elkarte, Oargi Elkarte eta Troskaeta Elkarte: San Martin Auzoa. —Iñaki Eskisabel eta Xabier Barandiaran («Nondik» aldizkariaren arduradunak: Oargin). —Joxemartin Apalategi, antropologoa eta idazle: 470003 (Zorroaga). —Jone Arin, idazlea: San Gregorio. Joxe Miguel Barandiaran, antropologoa, Sara etxea, San Gregorio. Dionisio Galparsoro, kultur zinegotzia: 881011. Juan Manuel Barandiaran, Goierri Eskola-ko zuzendari: 880062.

BEASAIN: —Academia D'os and dont's: 880346. —Bareak, komertziantze elkarte: 881446. —CAFeko langile eta enplegatuen sorospen kutxa: 880364. —Gipuzkoako Foru Aldundia, bidezainen etxea: 880157. —Murumendi Pelotazale Elkarte: 880364. —Goiztiri AEK: 889340. —Soc Deportiva Beasain: 880874. —Soc. Ciclista Loinaz: 880874. —Asoc. Parálisis Cerebral: 880687. —Udal Euskaltegia: 889094. —Ki-muak-Basajaun, kale nagusia, 23. —Aritzera udalekua, Yartzako ferriak, 12. «Ancha es Castilla» musika taldea, kale nagusia, 21-ld. —Goierriko Asanblada Ekologista: kale nagusia, 44-behea. —Loinaz abesbatza, Oriamendi 13. —Goierriko Zine Kluba, La Salleko ikastetxea, 886000. Aitzgorri mendi taldea, Jose Martin Arana, 2. —Beti-bizi Kultur Elkarte, Zazpi-Iturrieta, 7. —Alfil Xake Elkarte, Jose Migel Iturrioz, 23. Usurbe Elkarte, kale nagusia, 22. —Usurbe zinema: 880761. —Jesus Larrañaga Kultur Elkarte, Poligono Ezkiaga, 1. —Oria Garaia Kultur Elkarte, Sta. Maria, 5. Zaharren Egoitza, Erauskin errepidea, 5. Arrano Kultur Elkarte, Bista Alaia, 1: 887447. —Lanbide Kultur Elkarte, Juan XXIII, 2. —Beasain Kirol Elkarte, 880838. —Aitz-zorrotz Elkarte, Oriamendi 11. —Aralar argazkilarik elkarte, Arana 2. —Juventudes Parroquiales, Sta. Maria, 3. —Gaztedi Elkarte, San Ignazio, 7. —Aurtzaka Dantza-taldea: 880285. —Lorea Agirre, kazetaria: 881406. —Tere Irastortza, idazlea: 889640. —Andoni Sarriegi, itzultzaile eta idazlea: 882683. —Josetxo Mendia, «Egin»-eko kazetari: 882326. —Urdanpilleta, «DV»-ko kronista, 881655. Xabier Mendiguren Elizegi, idazlea, 887683. —J.A. Insausti, itzultzailea: 882093. —J.M. Lasa, itzultzailea: 277117. —I×igo Eguren, txistekontalaria: 882440.

EZKIO-ITSASO: —Andoaga Elkarte. —Zelaiondo Elkarte. —Antton Idiakez, kultur gizona: 889231. —Maria Rosario Idiakez, itzultzailea: 720267. —Xabier Mendiguren Bereziartua: 272951.

GABIRI: Osinalde Elkarte. —Erdie Elkarte. —Goruntz Dantza-taldea: 887396. —Iñaki Murua, bertsolaria: 880066/886355. —Marian Bidegain: 889231 (Maizpide).

IDIAZABAL: —Idiazabal Kirol Elkarte, Kultur Etxea. —Atxurbide Elkarte, Zepai kalea. —Axari Dantza Taldea, Gurutzeberri. —Axari Elkarte, Plaza Nagusia. —Otsoa Elkarte, Plaza Nagusia. —Kimu Elkarte, Kale Nagusia, 5. —Pilota Eskola, Igarondo Pilotalekua. —Zirika Irratia: 801099. —Martin Lizarazu, Kultur zinegotzia: 801064. —Alberto Aldasoro, EHNE-ko lehendakari: 801940. —Amaia Iparragirre («Egin»-eko kronista):

IKAZTEGIETA: —Udaletxea: 653329. —Asoc. Guipuzcoana pro-subnormales: 653003. —Iñaki Zubeldia, idazlea: 426319.

ITSASONDO: —Gaztetxea, Goiko-Plaza. —Arbel-aitz soziedadea, Beheko-Plaza. —Jubilatu Egoitza, Udaletxeazpia. —Itsasondoko Kultur Taldea eta «Kantillape» aldizkaria: Udaletxea. —Udal Liburutegia, Udaletxeazpia. —Mikel Aramendi, idazlea: 421608. —Jexus Lete «Ibai-ertz», idazlea: 885197. —Joxe Mari Mendizabal, Kultura zinegotzia: 885906. —Mikel Mendizabal, bertsolaria: 884898. —Jon Mikel Arano, idazle eta «Goierritarra»-ko kazetaria: 882268-889612. —Iñaki Larrañaga, soziologoa: 276855.

LAZKAO: —Danak Elkarte, S. Prudentzio, 25. —Domarda Elkarte, Areso, 7. —Esparru Elkarte, Elozegi 18. —Gerriko S.A., Elozegi 16. Txuri-uridin Elkarte, Hirigoien 12. —Xake Elkarte, San Prudentzio 27. Lazkao Kirol Elkarte, Kiroldegia. —Lazkao Abesbatza, Beneditarak: 880170. —AmaLur mendigoizaleak, Areso, 7. —Oin-Arin dantza taldea. —Antzar-gazteak Txaranga. —Daborrada Elkarte. —Euskal Herrian Euskaraz (Gerriko Tabernan). —Goiztiri AEK: Antsotegi. —Udal Liburutegia, Udaletxea. —Maizpide Euskaltegia: 889231. —Goierriko Euskal Eskola: 886500. —Juan Jose Agirre, Rufino Mujika, Kultur gizo-

nak (Beneditarak): 880170. —Mirentxu Etxezarreta, idazlea: 886705. —Kaki Arkarazo, musikoa: 459629. —Maritxu Dorronsoro, Kultur zinegotzia: 886408. —Dionisio Amundarain, irakaslea: 889231. —Pello Aramburu, Maizpide Euskaltegiko zuzendari: 889231. —Pakea Garmendia, kazetaria: 887299. —Xabier Narbarre, bertsolaria: 888344. —J.M. Iztue-ta «Lazkaotxiki», bertsolaria: 882007. —Aitor Larrañaga, idazlea: 886408. Drindots musika taldea (Jon Urdangarin): —Josu Agirre, kultur gizona (Beasaingo Institutua). —Zorion Mujika, «DV»-ko kronista. —Mikel Albi-su, «Egin»-eko kronista: 882360.

LEGORRETA: —Bilkoin Elkarte, Kale nagusia 7. —Jotakea Elkarte, Nagusia 10. —J.M. Agirrezabalaga, kultur gizona 886225. Xabier Agirre, aktorea: —Peio Iturrioz, itzultzailea: 885850. —Imanol Lazkanoiturburu, argazkilaria, 806060.

OLABERRIA: Guraso Elkarte, San Juan Plaza. —Asoc. Poblado Jose Maria Aristrain. —Odol Emaileen Elkarte. —Arkupe Elkarte, San Juan Plaza. —Jose Antonio Olaberria (Aristrain Fundazioa): 880300. —Martin, Udal-gizona: 881434.

ORDIZIA: —Jakintza Dantza Taldea, Jose Arana kalea. —Txapel Gorri Kirol Elkarte, Garagartza plaza. —Azari Ehiza eta Arrantza Elkarte, Urdaneta 10. —Ordiziako Kirol Elkarte. —Ordizia Rugby Elkarte. —Boxing Ziklo Kluba, Filipeneta 17. —Irriki Kultur Elkarte, Jose Arana Kalea. —Ordiziako Gazte Asanblada, Gaztetxea: 888092. Arlote Irratia: idem. —Balakataklin Atsedendirako taldea, Kale nagusia 14. —Altamirako Auzo Elkarte: Altamirako eskola. —Itxaropena Elkarte, Goierri kalea. —Argi-berri Elkarte, Gipuzkoa kalea. —Larrun-arri Elkarte, Jose Arana kalea. —Ordiziako Kultur Etxea (Barrena Jauregia: 881280), Nikolas Lekuona plazan: Ortzadar Argazki Elkarte, Musika Eskola, Bertsolari Eskola, Oroith, Oroith Txiki eta Oroith Txikittoak Abesbatzak. —Santa Ana eta Santa Ana Txiki abesbatzak, Dorre-etxea. —Beti-Argi Banda, Dorre-etxea. —GOIERRITARRA Aldizkaria, 889612, 124. posta kutxa, Dorre-etxea. —Laguntasuna Rondaila, Dorrea. —Zio eta Honoris Kausa, poprock taldeak, Dorre-etxea. —Ordiziako AEK: 880874. —Otsai-

la, itzulpen-etxea: 889325. —Belen Maiza, Kulturako zinegotzia: 880800-886423. —Gema M. Arrugaeta, argazkilaria: 889325. —Ramon Amundarain, irakaslea: 886816. Imanol Otegi, abokatua, 880851. —Patxi Zubizarreta, idazlea: 882410. —Jon Imanol Iturrioz, kazetaria: 889581. J.M. Lariz, zinegotzia (Harremanak): 880446. —Ana Irastorza, kazetaria (Azokaren kronikak): 888465. —Garbiñe (Euskara Arduraduna): 885850. —Ramon Ugalde, irakaslea (880862, Institutua). —Rafa Arizmendi, «DV»ko kronista, 882126. —Iñaki Hidalgo, Kultur Etxeko arduraduna, 881280. —Alazne Iturrioz («Egin» Oria-Urola: 675411-675455-Tolosa). Txema Auzmendi, irati-gizona: 423644.

ORMAIZTEGI: —Barduliarrak Elkartea, Berjaidegi Enparantza. —Basozulo Elkartea, Zumalakarregi enparantza. —Zumalakarregi Museoa, Iriarte Erdikoa Baserria: 889900.

—Ormaiztegi Kirol Elkartea, San Andres 14. —Igartzabal bertsolaria: 884259. —Xabier Gurrutxaga, politikaria: 882771. —Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, idazleak: 884407.

SEGURA: —Atsedeen Jubilatu Elkartea, Zurbano kalea. —Elorri Kultur Elkartea, Zurbano 23. —Segura Kirol Elkartea, Kultur Etxea. —Guraso Elkartea, Kale nagusia 24. —Txoritegi Elkartea, Zurbano Kalea 4. —Zopajale Elkartea, Larrizabal 3. —Zain Berri dantza taldea: 801207. —Segura Irratia (Lierni Elorza), Zurbano kalea: 801041. —Luis Telleria, Kultur zinegotzia: 801340. —Joxe Mari Telleria, pintorea: 801217. —Rafael Gerriko, idazlea: 801036.

ZALDIBIA: Mendi Elkartea: 884856. —Koldo Zubeldia: 882278. —Miguelanjel Unanua, idazlea: 885306. —Joxe Mari Goikoetxea, musika ekoizlea: 426319. —Joan Mari Olano, politikaria: 458297. —Rufino Iraola, idazlea, 884353.

ZEGAMA: —Zegamako Kasinoa San Martin 5. —Txarote Elkartea Txarote auzoa. —Olaberri Elkartea: 801115. —Amaia eta Edurne Alustiza, idazleak: 801171. —Joxean Ormazabal, idazlea: 426319 (Elkar). —Iñake Ormazabal, idazlea: — Larrea, kultur zinegotzia, 801053.

ZERAIN: Listormendi Elkartea. —Kultur Etxea, Mari Flor Mendizabal: 801879. —«Zerain» Urtekariaren arduradun: Andoni Alustiza. —Luis Aizpeolea, Udalgizona: 801682.

Abisua: Segurasko, agenda honek jasoko beharreko hainbat izen, telefono eta beste zenbait xehetasun, zuk, irakurle horrek, faltan nabaritu edo behar ez diren gisan azaltzen direla konaturatuko zinen. Hurrengo agendaren bati hori gerta ez dakion, bidal itzazu zure zuzenketa, apartazio eta berriak, Ordiziako 124. posta kutxara edo dei 889612ra.

ETXE - ALAI JATETXEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnok: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

TXINDOKI
SUKALDEKO ALTZARIAK
LOGOS - EN
Banatzaile Ofiziala

J.M. Iturrioz, z/g Tfnok.: 88 03 93 BEASAIN

**BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA**

Lekuona

ALTZARI eta APAINKETAK

Urdaneta Kalea, 12

Tfnok: (943) 88 12 70 20240 ORDIZIA



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

Segurtasun Indarrak orain eta hemen: inkestatuari amen



Galdera: Zer diozu F.S.E.-n ordeztantza despletatzeaz eta zer azken hauen joeraz?

* Geok

Agus Mendizabal, 25 urte, idiazabalarra, tabernaria

Gai arantzatsuenarekin zatozte. Pentsatzen duan guztia ezin bait duk esan, arrazoi ugarirengatik. Esan litezkeneen artean, nola esan, ondo ikusten diat delako FSE-en ordeztantza jartzea, ze ordezkatu beharreko direnak kanpokoak izan eta kanpokoizat kontsideratuak dituk. Herri honen aurka edo ez-alde zeudek. Berehala alde egin dezatela beste horiek, beraz.

Orain, pentsatzen diat ertzainak ez direla oso ondo edota oso egoki gizarte honetan integratzen ari. Zer dela eta? Autoritario xamar ikusten zetuak, jeneralki esan nahi dut eta kasu konkretuak ikusi izan ditugu, zeinetan beren portaera izan den oso a-la-americana.



Gotzon Bujanda, 25 urte, lazkaotarra, langilea

Repliegea ondo ikusten diat, baina despletiea...! zer edo zertarako balio izan eta zerbait aldatu behar badu, ondo iruditzen zaidak; bestela... Zenbat eta polizia gutxiago orduan eta hobe-kiago ibiliko gintuztekek, dudarik ez, nire iritziz. Poliziarik gabe ere desmarea bere neurrian izango huke. Hainbeste polizia, madero eta uniforme, ikaragarria duk. Hau bai dela pasada!

Bestela, berriz, ertzainak oso gaizki zoaztik, ikusten dudanez, oso harroak bait dituk eta faltoiak gainera. Esaten diat, behin ere ez zaidak tokatu ertzainek ni laguntzea. Jaleoa besterik ez dut izan horiekin, motiburik gabe.



Miel Anjel Iztueta «Zato», 22 urte, ordiziarra, langabea

Zipaio eta pikoak
Azaldu zaiten
Laister galderak ere
Hasi zien egiten
Hantxe gorri eta beltzak
Pasatu nituen

Berde eta gorriak
Dirade azaltzen
Hortxe ibiltzen dira
Guztioi zapaltzen
Halako jendeari
Ez diogu barkatzen
Aber behingoz zeraten
Denok konturatzen



Oskarbi Aizkorbe, 22 urte, ordiziarra, igeltseroa

Euskera egitea
Omen da delitu
Erdera egitea
Ninduten behartu
Ezetz esan da
Basean inuen bukatu
Orain zer diren
Laister naiz konturatu

Hiru urte hauetan
Ondo dira bizi
Berriz egingo dira
Tipo hoiek hazi
Dirua guri kentzen
Ez digu egiten grazi
Holakorikan eak
ez dute merezi.

Mirentxu Etchezarreta, 23 urte, lazkaotarra, Zuzenbidean lizentziatua eta idazkari

Niretzat ez polizia espainiarrik ez ertzainik ez luke esistitu behar. Anarkiaren sistiman bizi beharko genuke, baina heziketan oinarritu beharko litzateke guztia, gizartean bizitzeko-eta printzipio minimo batzu errespetatzeko arauak egon beharko lukete.

Errepliegea eta kontu guzti horiek bost ajola zaizkit; gertatzen dena da ertzainek errepresio aldetik bigunagoak ziren itxura zutela hasiera aldean, baina, adibidez, oraingo trafikoko lege berri hori ezartzeko momentuan, edozein Estatuko edozein moduzko polizia baino zorrotzago, gorrago eta gogorrago jartzen ari direla.



Ez zait batere gustatzen tafiko lege berri hori; lege berriak indibiduoaren kalterako jarri ordezt euren buruei aplikatzea pixkabat, zer moduz?; eta, bestalde, egokitu ditzatela errepliege eta azpiegiturak gaur egungo ibilgailuen sofistikazioen mailara. Multa jarri zidanari aurrekoan...



Xabier Munduate, 36 urte,
beasaindarra, Altzagan ostalari

Segurtasun Indarrak? Bai zera, ka-
ka zaharra!, orohar. Orain bai, parti-
kularizatzen hasten bagara oso bestela
da. Ertzainei buruz, nik ikusi in du-
danez, uste dut nolabait hobeto iristen
direla hemengo jendeengana aurre-
koak baino. Izango dituzte beren pro-
blema baina jende arruntari zerbitzu
bat eskaintzen diote. Ez dago esaterik
zerbitzu hobeagoa denik ze goardiazibi-
lako ez zizun inolako zerbitzurik es-
kaintzen. Errepresioa besterik ez. Ez
dago konparaketarik egiterik, zergatik
ertzainek zerbitzu ematen dizute sikie-
ra.

Ertzainen joerak, berriz, ez ditut
ezagutzen, nirekiko izan dituzten ha-
rremanak ez badira. Nire egoeran
—ezkondarik nago eta neska txiki bat
dugu, nire negozioa e.a.—, ez noa
sueltoago dabilen gazte jendea bezala
foiloietan sartzea, beraz, ez dut zertan
enfrentatu beharrik ertzainekin eta
bai, erabili izan ditut beraien zerbi-
tzuak. Eta gustora nago.



Garmendia «Mate», 24 urte,
goierritarra, langilea

Repliege/Despliegeaz asko hitz
egin da, akaso interesanteagoa da Er-
tzaintzak herriarekin duez joerez ari-
tzea, hurbilago bait dugu. Niretzat,
egunen batetan utziko dute ertzainen
despliegea egiten, ez dakit noiz, baina
hori bai, oso ondo lotuta dena. Erre-
presioa eta kontrola inoiz baino gehi-
ago izango da, bitartean, kolore eta pe-
laje askotako poliziak.

Duela urte batzuk jarri ziren Bea-
saingo basean eta ordutik aurrera egu-
erra, asko dira, diru eta medio asko du-
te eta kalea kontrolatzen dute egun
osoz, aurreneko egunetio. Lan ezber-
dinak dituzte: bat da trafikoa edo
atsoei kalea kruzatzeko laguntzea...



Joseba Zuhaitz, 37 urte,
ordiziartua, langabea

Gauza bat duk Ertzaintza zer izan
beharko lukeen, ni eta ni bezala asko-
ren eritziz: Herria defendatzeko eta
hura zerbitzeko indarra. Baina beste
bat duk zertara eramanez nahi duten eta
zertan bihurtu nahi duten PNV, EA,
EE eta PSOE alderdiek: beraien inter-
esak defendatu. Eta horretarako erre-
primitu behar badute, bada, egingo
diate.

Hor zegok koxka! Beraz, gaztedia
kontrolatzen (Goierrin ere) eta Herria
erreprimitzen saiatuko dituk. Arrasa-
teko detentzioak eta Bizkaialdeko tor-
turak. Horra bi kasu. Garbi zegok,
bestalde, 90 ertzain integratu direla
antiterrorismo ekipo batean. Zigorrak
eta errepresioa praktikatu diate. As-
kok ziotek sustituitzen dituztenak bai-
no erosoago daukatela horrelako zere-
ginetan testigua hartzen dutenak. Ho-
beak edo txarragoak direla esatea oso
gordina duk, ezin duk esan oraindik.
Goardiazibilak urte asko zeramatzaten
eta hauek oraindik berriak dituk. Ge-
roak esango dik hori.

Bitartean, Corcuera eta Lasak dato-
rren ostiralean firmatuko ditek akor-
dio famatu hori eta hurrengo egunean
hobeto esango niake zertara iritsi di-
ren. Corcuera pretenditu eta nahi
duena egingo dik eta partiduek onartu
egin beharko diate.

baina «politagoa» da kalea kontrola-
tzea, zein mogitzen den eta zein ez.
Datu piloak dituzte, informazio asko
jaso dute, esaterako, paisanoz eta ko-
txe kamuflatueta dabiltenak. Artxi-
boak betetzen badituzte hor izango di-
tuzte erabiltzeko egun batean. Gure
gauzak adierazten ditugunon, «ilega-
lon» aurka eta bila erabili izan dituzte.
Alemanian bezala, asko dakite hauek
ja, jendeak uste baino gehiago.

Goierrri mailan, kalean gabiltzanok
momentu oso txarrak izan ditugu as-
kotan, oso gaizki portatu dira: beldu-
rra sartzeko justifikaziorik gabeko de-
tentzioak... Gauzak baretzen dira pis-
ka batean baina hemendik aurrera ge-
roz eta errepresio gehiago izango du-
gu. Betidanik ezagutzen gara denak,
ezagutzen gaituzte.



Juan Karlos Korta, 27 urte,
ezkiotarra eta jatetxeko langile

Iritzi guztia eta egi osoa ere ezin
esango diagu. Dakitena da ez bata eta
ez bestea ez zaidala gehiegi gustatzen,
ze ez dut «kontaktu» haundirik izan ez
batzuekin eta ez besteekin baina eduki
dudana txarra. Badañik, multaketa.
Zer gehiago esango diat? Ertzainak
batzuekin zorrotz jokatzeko diate eta
beste batzuekin ez-ikusia. Dro-
ga-asuntotan eta uste diat azkenean
sartzen hasiak daudela. Dena dela ez
diat foiloirik nahi eta pasota samarra
nauk asunto guzti horietan. Nirekin
ondo eta gaizki, bietara portatu dituk,
denetatik baitzegok txapelgorrien ar-
tean ere.

Halere, Euskadigatik zerbitzu ge-
hiago egiteaz aparte, beldur gutxiago
sartzen ziguk ertzainaren figurak.
Besteak, pentsatzen diat inork ez di-
tuela ikusi ere egin nahi. Egingo diz-
kie beren zerbitzuak, ez diat ezer esa-
ten. Aspaldian eginga egon behar zian,
alde horretatik, indarren traspasoa.
Bakoitza bere lekuan eta ez ezer pinta-
tzen ez duenean. Ertzainak «gureak»
ote dituk ez zekiat baina hemengoak
izan badituk. Poliziren bat ere egon
beharko duk-edo, gaineraz, bestela
desmadre pixka bat ere egongo huke!
Hortaz ez diat askorik entenitzen, bai-
no.



TXALUPA ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

GURPIL

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

RAIMON MUSIKAL

SANYO & JAMO PROFESIONALAK
BANATZAILE OFIZIALA
Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRAETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

Deskalabro finantzieroa Lazkaoko Batzokian

Handiagoak ikusteko jaioak omen garela?, ez dakit ba! Azkenekoak marka guztiak txikitzen bait ditu! Ez dakit zenbat urtetako zintzotasun eta lanerako disposizio «ez interesatua» hauteskondealdi eta konmemorazio (zerbait al dugu ospatzeko ala?) guztietan aldarrikatzen aritu ondoren, gure agintarien etxe partikular eta pribatua, beren kotoan, eskandaloaren txinpartak saltoka traka batean, «erakitzen» ari diren Euzkadi prospero horren barne-jantzien, trapu zaharren ugerra, mugrea, agerian uzteko. Ea behingoz kontzientzien suziria pizten zaigun eta lehertzen garen, parrez bai-

no gehiago espero dakigukeenaren edo intuizioak dioskunez, dugin panoramaren aurreko indignazioaz!

Euria majo arituagatik kostako zaie kakazte hori inmakulatzea! Ez dugu zertan Guerra edo Naseiro kasuekin burua berotu beharrik: Lazkaoko Batzokian 1'5/2 milioitako desfalkoa burutu da herrian zabaldu denez. Desfalko horren egilea Batzokiko tesorero eta aurreko udal-agintaldian zinegotzi izan zen Ramon Quina jauna.

«Miztoek», mihi-gaiztoek diotenez, erosi berria omen du kotxeren bat...

Dena dela, eta gaur egun edozeinek erosten baldin badu kategoriazko ko-


txea, jaun hau ez omen dago langabezian, enpresa indartsu baten pertsonal-go arduradun bait da.

PNVren erreakzioa dena estali nahi izatea eta ezer gertatu ez bailitzan jarriztea: horrela lortzen omen du «alderdiak» ehun sozialarekin duen lotura izatea, barkatu, ehun soziala lotuta izatea esan nahi nuen. Fidatu ote gaitzke gure Udalak, Gobernuak eta abar gobernatzen dutenekin, «etxean lapur, kanpoan administrazioaile zuhur» posible izango al da?

● **Imanol Arzamendi**

Erdalzalegoak

Letra handiekin nonbait idazteko. Zoritzarreko berri bat bidaltzen dizuet lagunok. Erantsirik doakizuen fotokopia horietan ikusiko duzueñez, Goierriko hainbat herritako Udalek (tar-tean Udal elebakarrak omen direnak ere bai) argitaratu berri duten eta gurasooi banatzen hasi zaigun liburuskaren berri alegia.




Liburuska **ESPAINIERA HUTSEAN** dator eta herri horietako (Arama, Ataun, Beasain, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi eta Zaldibia), Gizarte-Ongizate Batzordeetako ordezkariak, bertako Gizarte-Laguntzaile —edo Asistente Sozialek— eta bereziki Ordizian bereaiek jarritako Drogomenpekotasun-arazoetarako Gizarte-Laguntzaileak ez dute ez kupidarik, ez lotsarik Goierriko guraso euskaldunokiko.

Zertarako ote dute hauetako askok EGA titulua patrikan?

Ez dakiguna da ze zabalkunde eman zaion, agian handia ere ez; eskolaren batetan erretxazatua izan dela esan digute, horregatik akaso ez zen asko zabalduko, baina guri behinepein iritsi zaigu. Noiz arte euskarak ez arte eta ez parte?

● **Murumendiko Dama**



EGUNKARIA SORTZEN

«Kazetariak», «Kazetaritza» eta antzekoen ingurukoak omen —aspaldiko masima bati kasu egin behar baldin badiogu— kazetari batek inoiz ukitu behar ez dituen gaiak. Baina, zoritzarrez, beste hainbat eta hainbat arlotan bezalaxe, normalizaziotik urrun gaude euskal prentsaren eremuan eta ezin isilik gera gaitzke.

Hori ez ezik, batek baino gehiagok esan du, 10 urte galdu ditugula euskal egunkaririk gabe. Askok hitz egin da honetaz azkenaldian baina, azkenean, bidezko pausuak eman dira eta itxura guztien arabera, euskaldungoari zor

zaion egunkaria izateko bidean gara. Gaia, «Guadiana» ibaiaren antzo, agertu-ekutatzen ibili da azken urteotan, baina ibai bihurrituena ere itxasoratzen denez, ez dago itzultzerik eta aurrera egingo da guztion laguntza-txoarekin.

Horretarako, eta gauzak dexente azkar joan behar dutenez, «Egunkaria sortzen» batzordeak sortu dira Goierriko zenbait herrietan ere, edozeinentzat zabalik. Kanpainan gara berehala, badakizu, guztiok ere gutxi izango gara. Horretara goaz eta kazeta zabal hau bai, geurea izango da benetan.

■ **«Goierritarrak»
Kultur Elkartea**



«Segura Irratia»: Etxean etsaia seguroago

Lotsagarria da jende bat, auke-
ran bitarteko urriekin, euskara
pixteagatik ahaleginak eta ha-
mabost egiten ari den bitar-
tean, ikustea nola beste zenbait jen-
de labore berberean ari direlako le-
loaz baliatzen diren, kontrakoa egi-
nez.

Garai batean euskaraz ia-ia soilik
emititzen zuen Segura Irratiak, his-
toria bitxia du gainera; duela urte
batzu hartu zuen abiadura eta egun
daramanak ez du izenik, hau da, kri-
teriorik gabeko irrati horretatik da-
torkiguna torpedeo inpresentable
bat dela esango nuke eta bat etorri
liteke bat baino gehiago konstatazio
honekin.

10.000 entzule omen ditu (nik ez
dakit zer bilatzen ote dioten entzule
horiek). Goierrin omen du intziden-
tzia gehien (gure belarrietara ez da
heltzen bertan esandako ezer inte-
resekorik). Euskararen alde ari
omen dira urteetan (interes apur bat
euki lezakeen zer-edo-zer erdara hu-
tsean da).

Hain zulo nabarmena izan da eta
da inguruotakoa non kanpoko irra-
tiek, aldizkari eta kazetak informatu
eta atsegin eman behar izan diguten
bertan, aldamenean gertatu zaigu-
naz. Baina azkenean badirudi erre-
paratzen joango dela gureganako
ahaztura hori.

Irrati hori horrek dexenteko krite-
riorik ez darabilela esan dugu eta

entzun besterik ez dago. Urteak zi-
ren entzuten ez nuela, Segurak go-
gaitzen ninduen entzun bakoitzean,
«inposibletzat» eman baikenuen
orain dela asko denok ere. Baina
gaiso erori naizenez geroztik ezin
irratia piztu eta diala haruntz-ho-
nuntz ekarri, eta horrenbestez ezin
egon berriro kritikatzeko hasi gabe.
Partikulariki nahiago dut D.V. iraku-
rri, «Cartas al director» Beasain eta
beste zenbait herri txikitako kroni-
kak kenduta.

Erderaz egiten dutenean (gehie-
netan) makina bat perlatxo entzun-
go dizkiegu, lehengo mendeko kasti-
llano anpuloso, Caseroentzako Kas-
tillanoa, bost duroko hitzak eta puz-
tuketa zer puzturik ez denean. Adi-
bidetzat, goizetan egiten duten he-
meroteka irakurtze intentona balda-
rra, negargarria da: edota beste zen-
bait saio, erosiak diruditenak alde-
z aurretik.

Euskaraz ari direnean, gogoz kon-
tra ez badabiltzate ere, bai ordea,
motibaziorik edo prestaketarik ga-
be. Erreziklaia eder baten beha-
rrean zaudete neskak! Jakina da gai-
nera bi hizkuntzatan aritzean bata
gailentzen dela, eta badakigu zein
kasu honetan ere, erdera. Hori pasa-
tzen zaie neska horiei: ustez badaki-
tela zer esaten ari diren, baina ez.
Hanka sartzea hanka sartze ondotik,
errosarioa erreztatzea bailitz errosa-
rio bakoitza eta guztiak.



Publizitatearen irratia dugu Segu-
rakoa, publizitate enkubiertoa, erda-
ra nagusi, subliminala eta merkea,
«fiambre» eta «lata»ko errellenoak
dira nagusi. Zerbait egiten ari dire-
nen itxuraz, erdarak irabazi eta pol-
tsikuak bete koadrilatxo batek. Hori
dabil seguruago Seguratik.

Ez dut sinisten GOIERRITARRA
aldizkarian egiten duzuen iragarki
horretan, gureak ez baino beste ba-
tzuen ahotsak zabaltzeko hobia
izango da ziur Segurakoa. Jende ho-
bea, profesionalagoa, eta ez etsairik,
kontratatu dezatela, hori eskatuko
nuke nik.

Hemen, norbaitek egin beharko
du sasi-irradi horrek egiten duen zer-
bitzu eta eskaintzen dituen emaitzen
neurketa eta segizioa. Ez euskarari
bakarrik begiratzuz baina bai horre-
tan ere.

Zerbait egin beharrean dagoela
deritzot. Segura Irratia sustatzen
duen «ente»ak edo dena dela-
koak-edo; geuk ere jakin nahiko ge-
nuke zer edo zein dagoen horren
atzean. Allakuidaos!

Patxi Garmendia (Ordizia)



*Zure eta gure ahotsak zabaltzeko
erarik seguruenak SEGURA IRRATIA
dugu. Indarberritu garenez, sail eta
alor berriak jorratzera gonbidatzen
zaitugu. Egunero, goizeko 8etatik
gaueko 12etara.*

FMko 89,2an gaude.

Aparteko orduen auzia



LANAREN antolamenduen barnean, harreman laboralak arautzen hasi zen unetik lanorduen banaketa ohizko eta apartekoen artean egin da. Aparteko orduen zentzua betidanik ustegabeko lanean edo ta plantillako langileen kopuruan, istripuak direla medio, sortzen diren hutsuneak betetzeari egon ohi dira.

Bainan, azkenean, apartekoak izate-tik ohizkoak izatera pasa dira lanordu mota hauek. Nahiz eta zenbateraino sartu daitezkeen arautua egon, benetan muga horiek ezer gutxiariko zerbitu dute, ezen azkenean era zabalean sartu izan bait dira aparteko ordu hauek. Lantegi berean edo langile batek bigarren lantegi batetan ere sartu ohi ditu ordu hauek.

Badirudi kontraesan baten aurrean aurkitzen garela. Hala, lanorduen jeitsiera langile mugimenduen eskaera historiko bat izan da. Adibidez, une honetan sindikatuek eskaera hau komenio kolektiboen negoziaketan sartua dute. Orduan, nola uler daiteke alde batetik lanorduen jeitsiera eskatzea, bestetik aparteko orduak mantenduaz? Egia da, sindikatuek inoiz baino indar eta seriotasun handiagoarekin ekin diotela premiazko ez diren aparteko orduen aurka, bainan, arazoa tamalez ez da bat batean konponduko.

Zergatik ez da ba arazoa konponduko? Printzipio mailan aparteko orduen zentzua zein den, bakarrik noiz sartu behar liratekeen, ordainetan diruaren ordean denbora libre hartzea komeni

litzatekeela, eta abar argi egon arren, kontura gintezken bezala arazoa askoz ere konplexuagoa da. Konplexutasun honek berak egiten du kontrola bera ere azkenik oso zaila. Aparteko orduak ez bait dira enpresaren interesarengatik bakarrik sartzen, langileen interes edo beharrak dira lanordu hauek ohizko izatera egiten direnak zenbait kasutan. Enpresak nahi izanez gero, aparteko orduak sartzeko prest dagoen langilerik ez bait zaio askotan falta izan.

Lantegi batek ohizko produkzio beharrei aurre egiteko, ezarrita dagoen lanordua kontutan hartuta, eta produktibitate behararen arabera, langile multzo bat behar du. Erizpide horien arabera beharrezko erizten den zenbatekoa erabakirik egoten da. Honela ohizko produkzio beharrei irteera emateko aparteko orduetara jotzen den heinean, langabe daudenei lanpostuak ukatzea datozkie ondorio bezala. Hau hainbat langabe dagoenean desgokia dela edonor konturatzen da.

Baina kasu batzuetan, aparteko orduak langile famili zenbaitzuk dituzten beharrei aurre egiteko neurri bezala erabil ditzakete. Hemen ere ordea, behar horien neurria non dagoen ikustea auzi gogorra da benetan. Beharrak kasu guztietan berdinak ez direla argi egonik ere, langile batek egunean 7 ordu eta astean 5 egun lana eginaz bizi maila egoki baten jabe izateko aineko soldata behar luke eta botere publikoek beharrezko prestazio sozialak eman beharko lizkioke.

Gai honetaz esan beharra dago ordea, gastu sozialari dagokionez, hemen Europatik 7 puntu beherago gabiltzala; barne produktu gordina kontutan hartuz gero Estatuan ehuneko 15a bada, European ehuneko 22a da. Honek gastu sozialaren babesean alde handia dutela adierazten du.

Aparteko orduak produktibitatearen galera eta absentismoaren gehitzea dakarte. Hau logikoa da, zeren langileek zenbat eta lanordu gehiago lan egin, orduan eta gaitasun gutxiago du, neke handiago, arrisku gehiago. Beraz, bizi maila eta laneko baldintzak hobetze aldetik ere, aparteko orduak ez egitea onuragarri gerta daitezkeen zerbait da.

Sindikatuaren eta administrazioaren kontrola areagotu eta sakontzea derri-gorrezkoa izanik ere, aparteko orduen sartzeari ezinbesteko kasuak mugatzea lortzeko beste baldintza batzuk ere sortu behar dira. Hala langileen kontzientziazatze lanaz gain, seme-alabei ikasketak emateko, gaixotasunean aurkitzen direnei laguntzeko edo eta etxe-bizitza egoki bat izateko aparteko orduak sartu beharrik inork izan ez dezan soldata eta prestazio egokiak.

Ezinbesteko kasuak kenduz gero, aparteko ordurik inork ez sartzeari da helburua. Helburu hau langile bakoitzak bere gain hartu behar du. Lan gehiago dagoenean langabe daudenak izan daitezela kontratatutak.

Martin Auzmendi
(Sindikalista ohia eta
Legebiltzarrean Diputatu)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



IRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
ORDIZIA

Bilore

J.R. Aizpurua: Ahalik eta bide naturalenetara jo behar derrigorrez

OZONO GERUZAN «ZULO» ETA HERSTURA

Ozonoa gure ingurugiroaren arazo anitzen artean bat besterik ez da. Oraindik nahiko urrun dakusagun gaia dugu, baina azken boladan oso ezaguna bihurtzen ari zaiguna. Fenomenu honi buruz gehiago jakiteko, xehetasunak eman zizkigun Elhuyar taldeko partaide den Jose Ramon Aizpuruask Itsasondoko Udaletxean iaz emaniko hitzaldian, besteak beste ozonoaren fisika, bere eginkizuna, sortu den arazoa eta nahiko ilun dagoen irtenbideen alorra jorratuz.

Zer da ozonoa

Ozonoa gas bat da, konposatu kimiko bat da. Guk arnasten dugun aire honek sustantzia asko ditu, esaterako oxigenoa, nitrogenoa, hidrogenoa...; eta ozonoa guzti horien artean zati txiki bat besterik ez da. Hiru oxigeno atomo elkartzean osatzen da: hau da, guk arnasten dugun oxigenoa bi oxigeno atomoz osatua dago; bi horiek beste oxigeno atomo bakar batekin elkartzen direnean ozonoa sortzen da. Oso elementu ez egonkorra da, berehala deuseztatzen eta formatzen da.

Non sortzen da

Ozonoa sortzeko lehendabizi oxigenoa egon behar du eta bigarren faktorea, berriz, argia da, argi fuerte bat egon behar du.


Oxigenoa, bereziki baso edo oihian handiak dauden lurraldeetan dago eta gure lurra begiratzen badugu Amazonia, adibidez, leku egoki bat da. Argitasuna, berriz, eguzkiak indartsuen jotzen duen lekuetan dago, Ekuatorearen inguruan eta hori ere Amazoniari badagokio.

Beraz, nolabait esan, tropikal guztietan sortzen da ozonoa eta gutxi gorabehera oihan horietatik 10 km.ko altuera batetan.

Prozesu kimiko baten ondoren behin ozonoa sortu eta gero gora igozten da estratosferaraino, hau, hemendik 20-40 km.tara dagoelarik

gutxi gorabehera. Hor, haizearen eta beste zenbait fenomenu klimatikorren eraginez, ozono hori mundu osora hedatzen edo zabaltzen da eta, bereziki, poloetara, eta hortxe daukagu gure gainean ozono geruza edo ozono kapa bat.

Ozono geruzan zuloa. Ordenadore bidez koloreztatutako Antartidaren argazkia. 1987 hartu zuen NASaren satelite batek. Zuloaren tamaina klimaren baldintzen arabera aldatzen



Geruza honek duen lodiera zenbatekoa den adierazteko esan behar geruza guztiko molekulak hemen daukagun presioarekin zanpatuko bagenitu, azkenean 3 milimetroko kapa bat lortuko genukeela. Beraz, oso kapa estua da. Gertatzen dena da molekula horiek ez daudela 3 mm.tan, baizik eta 20.000 km.tan banatuta.

Guzti honetaz gainera, kuriositate bezala esan daiteke ozonoa hemen altuera normalean badaukagula. Kotxeen ihespideetatik, konbustio txarretatik ozonoa sortzen da; fabrikek kea botatzen dutenean ere bai. Ozono hori kaltegarria da guretzat, maila batetik gora behintzat. Ozonoa ona ere bada. Eritetxeetan ikusten da "ozono" jartzen duela, izan ere desinfektatzeko, bakteriak hiltzeko balio bait du neurri jakin batean erabiltzen bada.

Hala ere azken aldian hitzetik hortzera aipatzen den ozonoa goiko hori da.

Ozonoaren eginkizuna

Ozonoak eginkizun asko izango ditu, baina guri ajola zaizkigunak bi dira:

— Alde batetik prentsan, irratian, telebistan esan dutena: Ozonoak, eguzkitik datozkigun izpi ultramarekiko babesten gaitu.

Izpi hauek, gu belzten gaituztenak dira. Eguzkiak bidaltzen dituen guztiak helduko balira guregana, hemen kiskali egingo ginatke. Horren aurrean ozono geruza horrek egiten duena da iragazki edo filtro moduko bat jarri, izpi kantitate jakin bat bakarrik utziz pasatzen. Horregatik ditugu hogeitaka gradu horiek eta ez 100-200.

— Beste misio bat ere badu. Eguenez lurra berotu egiten da eta kanpoan espazio dauka, hotza hau. Naturalki, gauean lurra beroa igortzen hasten da: bero hori izpi ultramareen bidez jaso badu, igortzen duena izpi infragorrien bidez egiten du. Horrela, bada, lurra hoztu egiten da, baina hor zerbaiz ez balego bero guztia pasatzen ez uzteko, hemen gauero izugarrizko izozteak izango genituzke, -40 gradu C, -60 gradu C. Zorionez ozonoak, beste hainbat elementurekin batera, ez du uzten bero guztia pasatzen.

Arazoaren nondik-norakoa

Duela lauren bat urte biologo batzuk Antartidan egindako ikerketen berri eman zuten **"Nature"** izeneko aldizkarian, eta hantxe sortu zen ia arazoa. Beraiek ziotenez, han sei urtez egon ziren hainbat gauza neuritzen eta horien artean ozono geruzaren bilakaera. Konturatu ziren ozono geruza txikiagotzen zihoala han Poloaren inguruan eta, gainera, proportzio handi batean, % 20an urtez urte. Hain larria izan zen arazoa non 1987. urtean duela 10 urte zegoen geruzaren erdia baino ez zegoen, degradazio fenomeno oso azkar bait zihon.

Orduan jende guztia mogitzen hasi zen, baina zorionez ikerketarik serioenak zientzi gizonak egin zituzten, unibertsitateko gizonak eta ez enpresa jakinetakoek. Haiek ondorio batzutarantz iritsi ziren eta garrantzitsuenak da mundu guztiak onartu zituela.

Orain dela bi urte geruzaren methezeaz hitzegitea ez zen erraza, teoria asko bait zeuden. Zenbait teoria posible ziren, baina bazegoen bat haien artean zera zioena: konposatu kolrofluoro hidrokarburoak zirela horren eragileak. Hori arazo larria zen zeren konposatu horiek, CFC, munduan asko erabiltzen dira eta iraultza bat zatekeen aldatu egin behar zela esatea.

Dena dela, egin ziren ikerketek bide horretara eramane zituzten eta ondorioa hau izan zen: CFC sustantzia horiek zutela erantzunkizunik handiena hor gertatzen ari zen saraskian.

Haseran pixkabat kostatu egin zen onartzea, baina esperimenduak hain garbiak zirenez ez zegoen bueltarik. Datuak botatzen esan dezakegu orain detektatu den zulo hau ez dela orain dela bi edo lau urte botatako klorofluoro hidrokarburoen eraginez sortu, duela 20-30 urte botatako eraginez baizik. Guk sustantzia hori isurtzen dugunean pixkanaka gora joaten da, estratosferara, baina hara heltzeko 20-30 urte horiek behar ditu. Goraka joaten den neurrian ez da ezer gertatzen, baina igo eta polotara iristen denean orduan hasten da arazoa.

Pentsa, orain eragiten ari den sustantzia duela 20 urtekoa bada, ez dakit garai hartan zenbat isuriko den, baina ziur ez zela gaurkoaren laudena ere. Horrek esan nahi du

orain botatako 2000. urtea igaro ondoren hasiko dela eragiten. Beraz, nahiz eta sustantzia horien produkzioa eten, ez dugu arazoa konponduko gutxienez 50 edo 100 urtetan. Horren aurrean soluzio teorikorik ez daukagu, beste gauza da Naturak sorpresarik emango digun bareneko fenomeno birsortzaileen bidez.

Ozonoaren "zuloa"

Hasteko argitu behar da "zuloa" esaten denean ez dela geruzak zulo bat duenik pentsatu behar, geruza estuago dela orain baizik.

"Zulo" hori dela eta izpi ultramoreak gehiago pasatzen dira. Ikerlari batzuk diotenez izpi hauek %5ean handituko balira, azaleko minbizaiak % 10ean gehituko lirateke; landareek eta animalien arraultzek mutazioak jasango lituzkete eta guk ere bai; itsasoan arrain asko galdu egingo lirateke, azpiagokoak bakarrik geldituz; eguraldia aldatu egingo litzateke. Aldaketa sakonak, beraz.

Zerbait baikorra aipatzeko esan behar momentu honetan "zuloa" ez dagoela. Ozono geruzaren zuloak hitzegiten denean erreferentzia, beti, geografiako toki jakin batzurretan kokatzen da: Hego Poloan eta Ipar Poloan. Zergatik? Bi leku horietan eguraldi berezia dagoelako, neguak 6 hilabete eta udak beste 6 hilabete iraunez. Orduan, negutik udarako igarotze horretan sumatzen da zulo hori dagoela.

Arrazoi nagusia zera da: hango klimatologia ez da ziklikoa hemen bezala. Hemen tarteka eguraldi ona daukagu, tarteka txarra, gutxi gora-behera ziklikoa da. Han, aldiz, eguraldia zirkularra da, bertan jiraka ibiltzen da, gaur borraska eta bihar ere bai. Zuloa sortzen da justu aldaketa ematen hasten denean. Negutik udarako aldaketarekin, itsasoko haize berria ozonoarekin eta konposatu klorofluoro hidrokarburoekin etortzen da eta orduntxe nabaritzen da zulo hori. Hori gertatzean, zulo hori mugitu egiten denez poloaren inguruan, batzutan Argentinako hego aldea hartzen du, Australiakoa ere bai bestetan.

Hortaz, garai horretan, iraila-urria-azaroan zuloa sumatzen da, baina beste aldi batzutan ez.

Oraingoz, azkarregi da mundu osoan ozono kapa asko jaitsi dela esateko, baina bai apur bat jaitsi dela.

Irtenbideak?

1987. urtean, ekonomikoki aurreratuak diren nazioak elkartu eta arazoaren aurrean irtenbide bat bilatu behar zela ados zeuden.



Esaten zen produkzioa etetea ezinezkoa zela, ekonomikoki jasan ezin delako. Hortaz, pausoka egin behar da gauza; azkenean lortu nahi dena da 1998. urteko produkzioa 1986.ean egin zenaren erdia izatea. Nazio batzu hasi ziren produktu ordezkatzailerak bilatzen; baina geroztik jakin izan da 20 urteren buruan egiten dela kaltea eta honen aurrean Montrealeko proposamena motza geratzen da.

Geroztik beste kongresu batzu egin dira eta geroz eta nazio gehiago sartu dira. Denak ados daude 1992tik aurrera inork ez duela produzitu behar horrelakorik esatean. Baina txinarrei, esate baterako, ez zaie interesatzen. Beren ekonomi plangintzako puntu bat 2000. urterako familia bakoitzak hozkailu bat edukitzea da. Hauetan dagoen zirkuituko likidua CFC sustantzia da eta haien zatia hori bertan behera uztea izugarria litzateke.

Hortaz, kontzientzia badago produkzioa eteteko, baina arazoak sortzen dira, batez ere herrialde atzeratuak.

Produktu kaltegarriak

Jendeak gehien identifikatzen duen produktua "Spray" da. Egia

da "Spray"rik gehienetan erabiltzen dela sustantzia hau, baina ez horietan bakarrik, % 30 bakarrik erabiltzen bait da.

Badago beste % 20 bat hozkailuetan erabiltzen dena, atzeko zirkuitoan dagoen likidoan, alegia. Aire egokituzkoetan ere likido hau erabiltzen da. Eta produktuak izendatzen jarraituz, amerikarren hanburgesei jartzen dizkieten estalkiak egiteko, kotxeko eserlekuen espumetarako, telebistek eta beste zenbait tresnak ekartzen dituzten azaletarako ere erabiltzen da.

Etorkizunari begira zer?

Batzuren ustez produktu ordezkatzailerak bilatu behar dira. Hau, ona da momentuko egoera saltzeko, baina ez da behin betiko soluzioa. Egia esan, ez dakigu behin betiko irtenbiderik badagoen.

Hildo horretatik, adibide gisara "spray"ak erabili ordezkariak enpresak jarri dituzte ozonoari kalterik egiten ez dieten produktuak, baina, agian, ez dute esaten beste kalte bat egiten duenik. Bide beretik, neroni gehien gustatzen zaidana «Integral» aldizkarian irakurri nuen: **Ahalik eta bide naturalenetara jotzea.** Ezin dena da erosotasun maila bat

lortu badugu, orain atzera egin, hori ez. Baina badaude sustantzia naturalak "spray" bezala sakatu ordezkariak erabili ditzakegunak, lehenago koloniak esate baterako, eskuaz estutuz funtzionatzen zuten; mekrominaren sistema ere hor dago. Inolako zalantzarik gabe, honelako gauzak egitea posible da.

Hozkailuetan ordezkatzailerak aurkitzea momentu honetan zaila da, motorra aldatu beharko litzateke eta teknologia garestituko litzateke ondorioz. Baina egin daitekeena zera da: hozkailuek normalki ez dute aberia handirik izaten eta hor dautan sustantzia hori frigorifikoa zahartu eta botatzen denean, likidua aprobetxatu daiteke, zirkuito itxian lan egiten duenez ez bait da isurtzen. Beste hozkailu bati sartzeko aprobetxatuko balitz, ez genuke ezer isuriko eta daukagun produktu bat erabiliko genuke kontaminatu gabe, urte batzu barru efektu hori ia galdu egiten duelaik.

Amerikarren hanburgesak biltzeko ziur badaudela beste sistema batzu.

Bukatzeko esango nuke norberak ahal duena egin beharko duela bere ingurugiroa zaintzeko.

Lurdes Amundarain eta
Itsasondoko Kultur-Taldea

ETORKIZUN IKUSPEGIAREKIN



Sortu zenetik, BANCO GUIPUZCOANOa estuki lotu zaio gure herriaren garapenari; bere aurrerapen ekonomikoan, sozialean eta kulturean lagunduaz, bitarteko berrien sorkuntza bultzatuz beti etorkizun oparagoa lortu ahal izateko.

Gaur, larogeari urte baino gehiago igaro ondoren, Zerbitzu berbera eskaintzen jarraitzen dugu, hoberena nahi dugulako herri honentzat. Orain eta etorkizunean.

BANCO



Guipuzcoano

Euskal Ikastaroa Maizpide Euskaltegian

Aurreko hamabost urteetan egin den bezala, aurtan ere Maizpide Euskategikoak buru belarri ari dira XVI. Udako Euskal Ikastaro honen prestaketa-lanetan.

Antolaketa honetan Maizpide Euskaltegiak hirugarren urtea du, lehen Goiherriko Euskal Eskolak antolatzen zuenez. baina aldaketa hori izenean bakarrik eman da. Izan ere, pertsona berak bait dira langintza honetan dihardutenak.

Lazkao ikastaro honen berezitasunik aipagarrienetako bat inguruan sortzen duen euskal giroa da; ikastaroa ez bait da ekintza akademiko soilera mugatzen eta zenbait kultur ekintza ere antolatzen bait ditu, herri osoak parte har dezan.

Ikastaroko lan handiak Prestaketa-lan handiagoak

Hainbeste jenderentzako (400 inguru) klaseak ematea, sukaldari eta zerbitzarien lanak, bulegariak eta gaintzeko langileak handiak badira ere, baduten beren ordaina, izan ere beronen helburua eta ordaina hainbesteko jende-sailak euskara ikasten aurrera egitea bait da eta hori lortzen da.

Ikastaro hau gauza dadin, ordea, inongo eskerronik jasotzen ez duen ordu eta ordu askotako lana dago: jangela prestatu, ikasgelak jantzi, logelak hornitu, sukalde osatu eta abar. Horrela aipaturik ez dirudi beste munduko gauza denik, baina leku horiek elkarrengandik aparte daudelako batetik eta bestetik ikastaroan erabiliko direnerano erabiliak ez izateak normalean, astuntzen du lan hau.

Jangela euskaltegi-alboan jartzen da, horretarako estalpe bat egokitzen delarik. Ikasgelak Ikastolan eta San Prudentzio ikastetxean izaten dira. Ikasgela bezala erabiliak izan arren zenbait arazo izaten da hauetan ere. Logelak, berriz, sail haundi bat orain ikasgela diren jartzen dira.

Klaseei dagokionez, garrantzirik haundiena irakasleek dute, irakasle berak bait du taldeko giro atsegin eta langiroaren arteko oreka aurkitzeko betebeharra. Irakasle on batek materialik eskasenez ere helburuetara

iristea lortuko bait du. Irakasleen etengabeko prestakuntza datza beraz alderdi didaktikoaren funtsa. Hauetako batzuk Udako Ikastaro hauen lehengo saiotik gaur arte, urterik galdu gabe aritu dira lanean. Beste batzuk berriz, Maizpiden, Goiherriko Euskal Eskolan eta beste euskaltegi batzutan dihardute urte askotan zehar. Berriak, berriz, aurtengo neguan hasi eta prestaketan ari dira. Talde guztietan jarri ohi dira irakasle berriak eta zaharrak batzuren eskarmentuak eta beste ondo berriak elkar harturik ahalik eta etekinik onena atera dakion ikastaroari.

Material didaktikoari dagokionez, urte osoan euskara irakasle direnek ezagutzen dituzte diren guztiak eta irakasle berriei neguan eginiko ikastaro batetan eman zaie beroriei buruzko berri zabala.

Ikastorduek ahalik eta atseginen gertatzeko bakoitza irakasle batek eman ohi du; gehienez ere talde berean segidan bi eman ditzakeelarik. Ikastorduek sei izaten dira egun osoan zehar banaturik.

Kultur ekintzak: Klase eta otorduak bezain garrantzitsuak

Ikastaro honetan zehar ia egunero antolatzen dira kultur ekintza berezi batzu: kantaldiak, antzerkiak, herri-kirolak, e.a.

Hauek berez oso interesgarriak ba-

dira, ikasleentzara are interesgarriagoak, klaseko egoera artifizialean ikasia praktikatzeko, bizi-bizian erabiltzeko aukera ezin hobea ematen bait diete, bai entzumena lantzen dutelako, bai beroriei buruzko komentarioak eginez mintza-praktika egiten dutelako eta jaialdi horietara joaten diren euskaldunzaharrekin harremanak izan ditzaketelako.

Iluntzetako kultur ekintza guzti hauetaz aparte, badira beste bi ere oso garrantzitsuak, bazkalondoetarako antolatutako hauek: euskal dantza ikastaroa eta mus txapelketa. Lehena herriko dantzari gazte batek emana eta bigarrena Gerriko elkartearen zenbait euskaltzale amorratuek antolatu eta ikasleekin nahasian bikoteak osatuz jotakua.

Maizpide Euskaltegiak, ez dute aurtengo ikastaroa azkena izaterik nahi eta horretarako, arrakastatsua izateko, jo eta ke ari dira lanean. Baina badakite jakin berek bakarrik ezin lioketela orain arte izan duten arrakastari eutsi, izan ere Lazkao osoari erasaten bait dio ikastaroaren antolakuntzak: logelak uzten dituztenei, tabernariei, mus txapelketan parte hartzen dutenei, kultur ekintzetan parte hartzen dutenei eta abarri.

Ikastaroak, girorik galdu gabe, bere horretan iraun dezan herritar guztien onespina eta kolaborazioa espero dute XVI. Udako Euskal Ikastaroaren tolatzaile maizpidetarrak.

J.M.O



25 URTE DARAMATZA MAIATZEAN BESTE HORRENBESTEREN URTEURREURENA OSPATZEN DUEN BEASAINGO IKASTOLAN

Ixabel Olano: «Oraingoari aurre egin eta geroa etorriko da»

1965.eko Urtarrilaren 7an ireki zituen atea Beasaingo Ikastolak San Inazio kaleko orduko 7. zk.ko etxean (gaurko 11.ean) beheko aretoan, Ekintza Katolikokoan gelan. Hiru urteko —bizpahiru-lau urteko— 25 neskato-mutikorekin hasi zen Ixabel Olano Segurola Andrea, Andereño lanetan. Ez izateagatik, komunik ere ez zuten han.

Atsegina da 64 urteko emakume sendo honen hizjario jator eta egokia entzutea. Gaur egun erretiroaren ateetan dugu eta Ama-Seme-Alaba hirukoteak dihardu irakasletzan Beasaingo Alkartasuna Lizeoa izeneko Ikastolan.

A. Sarriegi Eskisabel

Gaur 1.200 ikasle inguru ditu Alkartasuna Lizeoak (denak Beasaingoak ez izan arren) Eskolaurretik UBIrains. Bi hotzbero eta hamaika gorabehera pasa da harez geroztik. Umeen guraso batzuk bero-bero egin eta Ikastola ireki zuten. Gaur bata eta bestea esaten da baina garai hartan benetan berotu beharra zegoen honelako mentura bati ekiteko. Ezin ahaztuzkoak dira alde horretatik, lehenengo Batzordea osatu zuten Joanito Agirre, Manolo Dorronsoro, Joanito Erguin, Josetxo Zufiaurre eta Karmelo Olano gurasoak, On Tomas Arregi apaiz J.arekin batera.



Ixabel Olanorekin

—Nola izan zen hura Ixabel?

—Neri deitu egin zidaten. On Tomas Arregi etorri zitzaidan eta ekiteko prest al nengoen galdetu zidan. Magisteritza Titulua banuen eta familia ere koskortu samarra nuen, baietz esan nion. Lazkaora joan nintzen 3 bat hilabetetan praktikak egitera. Han, M^a Ixabel Aldasoro eta M^a Karmen Eizagirre andereñoek urtebete zera-maten lanean eta Elbira Zipitria Andereño zenaren metodoak ikasten aritu nintzen.

—Zein metodo, programa eta materialekin hasi zinen lanean?

—Elbirarenekin. Irakurketa eta idazketa txotxen bidez irakasten zen. Orea edo plastilina ere ugari erabiltzen genuen eskulanetarako. Libururik batere ez. Geroago, gerra aurreko «Martin Txilibitu» eta «Xabierto» eskuratu genituen. Gainerakoan esateko ezer ere ez zegoen. Gero, ahal genuen bezala, geuk prestatutako blok batzuek egin genituen. Programa ere geuk prestatzen genuen eta ez genuen inondik inora ere orduko programa ofizialik jarraitzen.

—Eta, herriko jendeak, nola ikusten zuen guzti hori?

—Zorokontutzat hartzen zuen. Jakitekoa litzateke gainerako umeen gurasoek han umeak zituztenekiko zer pentsatzen zuten... Ez eskola-kartilarik, ez legezketasunik, zorokontua noski. Lehenengo promozioa irten arte han ez zegoen ezer. Abestu, jolas egin, kalera irten eta beti kantari. Ez zen ohizkoa orduan eskoletatik irteerak egitea eta gu irten egiten ginen eta gainera denak kantari joaten ziren prozesioetan bezala, baina euskaraz. Jendea leiho eta balkoieta irteten zen ikustera.

—Noiz ikusi edo sentitu zenuen zuk Ikastola sendotuta eta itzuliezineko prozesu bezala finkatuta?

—Loinazko San Martin Plazako Herri-Eskoletan sartu ginenean, Udaren eskoletan alegia. Han, beti erdara besterik egien ez zen lekuan euskaraz irakasten ikustea... Izugarria izan zen nerretzat. Ordurako legeztatuta, etab. ari ginen lanean, baina artean ere, bazterreko eta erdi isilpeko ekin-tzatzen nuen, baina 1978 inguruan herriko eskoletan sartzean, «hau benetan zahoak» pentsatu nuen.

—Une eta zirrara bereziak ere izango zenituen bada...

—Bai, berezienak Goardi Zibilen eta Inspektorearen bixitak. Ikastolara gutxiena uste genuenean azaltzen ziren Goardi Zibilak edozer gauza galdetuz. Behin etxera ere joan ziren eta Ixabeltxo alabari estutasun ederra eman ere bai geu kanpoan ginela. «Pero tu mare e Maetra-Maetra?» galdetu omen zioten. Loinatz-jai batzutan berriaz Lizeoa arakatu zuten goitik beheraino...

Legeztatu aurretik (1974 edo 1975az aurretik), Inspektorea etorrirako bakoitzean, mutikoak komunera sartzen genituen, La Sallen kamuflatuak kartilak zituztelako —haiei ere eskertu beharra dago laguntza—. Franco jeneralaren argazkia eta Espainiako mapa ateratzen genituen arrapaladan eta lan berriari ekiten genion. Umeei beti galdera berdinak egiten zizkien: «¿Cuál es tu bandera?», «¿Cuál es tu Patria?» eta «¿Cuántas son las provincias vascas?». Erantzunak halamoduzkoak ohi ziren haien izenak eta zazpi probintzien erantzuna ia beti. Gero izaten ziren ixtiluak guretzat...

Behin batean gainera, inspektore-andrea istripuren bat izan berria edo nonbait eta desitxuratu samartua etorri zen. Ume bat, ez bat eta ez bi, farrez hasi zen. «¿Qué dices niño?» galdetu zion eta hark hitzetik hortzera «Este dize parezes elepante». Leheretzekoa izan zen noski. Gero Inakerentzat eta nerretzat izan zen sermoia...

—Zure ustez, zer lortu dugu eta zer ez dugu lortu Ikastolarekin?

—Beasainen behintzat, lortu dena, euskara zabaltzea izan da. Bestela ez zukeen jende askok jakingo ete zekite-nek ere ahaztu egingo zuket. Irakurtzen eta idazten euskaraz ikastea, ezinbestekoa izan da, gure garaikoen-tzat ez bezala noski. Guk etxean eta zaletasun hutsez bakarrik ikasi ahal izan genuen irakurtzeko liburu batzuen bidez. Hori behintzat lortu da.

Lortu ez dena zera da, Ikastolan ikasi arren, euskara gauza guztietarako ez erabiltzea. Orain somatzen den gaitzik handiena jakinaren proportziozko erabilpenik eza da. Hori ez dugu lortu oraindik.

—Horrenbeste lan eta hain baldintza berezietan egin ondoren, erretiroa ere ondo irabazia izango duzu noski. Gertu duzu ala...?

—Iaz arte ez nuen ikusten. Erretiro-rik ezin nuen jasan. Aurten bai, aurten sartua naiz erretiro-urtean eta orain ikusten dut. Eskola emateko oso ondo nago oraindik hezurretako gogortasun apur bat gorabehera, baina gustora nabil. Gainera, orain pazientzia handia-



goa daukat. Amandre izateak ematen sobrare... Jarraituko nuke oraindik. Hala ere, Jainkoak osasunezko urte batzuk ematen badizkit, badiut gustora egingo nituzkeen lan batzuk, denbora-faltaz oraindik ezin egin izan ditudanak: marrazketa eta pintura-lanak. Badut hor oparitan jasotako asto bat estrinatu gabe eta...

—Zer esango zenioke gaur Irakasle izan nahi duen gazteari?

—Ez zekiat. Aholkuak erraz ematen dituk. Zerbait aipatzekotan, pazientzia handia izateko eta umeen mailan jartzeko, errespetao gordez, baina lagun bat gehiago balute bezala. Salesko San Frantziskorena edo izan behar dik, alegia, askoz ere gehiago lortzen dela ezti-goilarakada batez, kupelkada ozpinez baino. Umeekin pazientzia handia behar dik eta beste-reenekin are handiagoa.

Bestalde, ni prest nagoela urteek erantsi didaten apurra beraiei eskuza-baltasunez azaltzeko. Oraingo irakasleak gure garaikoak baino hobeto prestatuta zetoze, baina beharbada urteetako jardunak erakusten duena falta diate eta hori eskaintzeko ni beti prest aurkituko nautek.

—Zein izan ziren zure ustez unerik txarrenak Ikastolaren bizitzan?

—1973-74 inguruko barruko gatazkaldia zalantzarik gabe. Penagarria izan zuan. Bestela ez diat oroimen txarrik. Ikastola bezala bestela ez nian sekula beldurrik sentitzen. Gurasoak ere animosoak eta jende jatorra zituan nonbait inguruan eta... Beti orainaldian pentsatzen genian. «Oraingoari aurre egin eta geroa, ba, etorriko da», pentsatzen genian.

—Orain Alkartasuna lizeoa izeneko Ikastetxe handi horretan ematen duzu eskola. Zenbat ikaslekatatik pasa zara 25 urteotan?

—Beno, ba, San Inazio 7ko sotoa, Olanoren etxea, Aranealdeko Lizeo Zaharra, San Martin Plazako Herriko Eskolak, Errekarteko Prefabrikatuak eta azkenik Lizeo Berria izan dituk ni-

re irakasleku. Bazegok ni baino leku gehiagotatik pasa den jenderik ere. Hori bai, Ikastetxe berean ere zulo askotatik pasea nauk. Aranealde Lizeo Zaharrean adibidez, obrak zirela eta beheko sukalde zaharrean ere aritua nauk goiko gela prestatzen obretan ari zirelako.

—Zer alde nagusi nabaitzen duzu orduko eta oraingo ikasleen artean?

—Ikasleen artean, txikien artean batipat, handirik ez. Umea beti ume, lehengoa eta oraingoa. Koskortuetan gehiago beharbada. Nik ez diat 11 urtez goikorik eduki. Oraingoek, hasieran genituenek baino mundu-informazio zabalagoa diate. Gehiago entzun eta ikusten diate. Telebista, etab.

Bestalde, oraingoak eskolaz kanpo oso lotuak zeudek. Ume asko denak egiteko ere gai dituk, baina beste batzuk ez eta azken hauek lehenik eskolakoa behar diate.

—Eta orduko eta gaurko guraso eta irakasleen artean?

—Hor erabateko desberdintasuna zegok. Orduan denok bat gintuan. Hori hazteak ere eteten dik, baina harremanak ez dituk berdinak. Orduan bilerarako deia egin eta denak etortzen zituan. Orain aldiz... tira eginda ere ez dituk etorrerazten batzu-batzuk.

Guraso axolagabeagoak zeudek gaur oro har. Utziagoak. Bazeudek noski jarraitzen dutenak ere, baina beste batzuk, dei egingo ez bageniek ez genizkiate ezagutu ere egingo.

Irakasleok ere ez gaituk noski berdina. Asko gaituk eta modu askotakoak. Lehengo lotura eta elkartasun harenik ez zegok. Lehen morkots bat bezala gintuan eta orain aldiz, hainbeste izanik...

—Ixabel, zergatik egin duzu guzti hori urterik zailenetan?

—Euskararengatik. Guk umetan eta gaztetan izandako giro hartan guztiz galdu ez zenez, geuk jasotakoa ondorengoei hobeto pasatzegatik.

Henry Ford, gurpil gainean mundua jarri zuen gizona



Industria langintzan iraultzarik handiena sortu zuen Henry Ford-ek 1910.ean kotxe-tresnaduraren lehenengo katea asmatu zuenean. Automobilak aberatsen tresna izatearen aurka zegoen eta salneurriak dolar batzu gutxiagotan jartzeak milaka erosle gehiago izatea suposatzen zuela zioen. Berea da «nire bezeroek edozein koloretako kotxea izan dezakete, berau beltza baldin bada, betiere» esaldia. Kontraesaneko gizona Ford hau.

Ford-entzat ez zegoen ezinik. Amerika txundituta utzi eta mekanika egituraz giza-bizitza maila gorengora igo zuen EEBBetan. Hau duzu bakarti erraldoi baten istorioa.

Ford-en eginez sartu zen amerikar populuaren bizitzan sakon-sakoneraino «T» itxurako automobila. Bazeuden, bai, lehen ere autoak, baina ordurarte zebiltzan guztiak Europatik karreatuak ziren eta nahiko garestiak gainera —8.000 \$-etatik gorakoak gehienak—. Kotxe haiek astunak eta dilubiourreko abereen antzekoak ziren, gidatzeko txofer trebeak behar zituzten.

Bestelako asmoa zen Ford-ena: mundu guztia behar zuen izan auto baten jabe. Herri xehearentzat bizitza leunago eta errazagoa egitea Ford-en nahia, bere nahiaz gain. «Ongiizatea ahal bait gehien zabaldu», esatea gusztatzen zitzaion legez. «T» modeloan dena zen erraza eta arina, edonork gidatzeko modukoa, «astoa legez apala, oinetakoak bezain onuragarria», Henryren esanetan. Salneurria: 800 \$ gutxi gora-behera.

Giovanni Papini idazleari elkarrizketaldi batean esan zionaren arabera, «nire helburua da biharko mundutar bakoitzak bere autoa izan dezala». EEBBetan harrera ezin hobea egin zitzaion. 1908tik 1927 urtera bitartean 15.000.000 milioe «T» zabaldu ziren amerikarren bizi-baldintzak osoro aldatuz.

Baina, nór zen Ford hau?

Irlandar jatorriko nekazari pobreen semea, 1863.go uztailan Mitxigango Darborn-en jaioa; aita lur zati baten jabe egin, bere izerdiari esker, eta Henry seme nagusiak horretan jarraitzea nahi zukeen. Baina semeak ordea, lan egiteko orduko tresneria eskasa zela-eta, baserrian jarraitzeko gogo gutxi. Geroago, diruduna izatera iritsi eta «traktor» bat asmatu zuenean, «Fordson» —Ford-en seme— izena eman zion hari.

Mekanikarako zaletasun bizia erakusten du gaztetandik eta lagunengoz erlojuak debalde konpontzen zituen. Aitak ez zuen ondo ikusten semearen jokaera, bere dohaiak alferrik galtzen omen zebilelako eta errieta egiten zion. Hori zela eta ospa egin zuen semeak etxetik. Henryren jokaera, Amerika osoaren jokaera berbera dirudi: baserri girotik ziudaderako bidea hartzen zen.

Tekniken aurrerakuntzen aroa hasia zen. 1844.ean Morse telegrafoa asmatu zuen. Dinamoak ere argia ikusia zuen. Thomas Edisonek argi hobea eta merkeagoak lortu zituen eta Eastmanekin zinea. Bell-ek 1876.ean lehenengo telefonotramankulua eta hurrengo 50 urteetan hamasei milioe banatu ziren hartatik. Bata bestearen atzetik idazmakina, kalkulugailu mekanikoak eta kutxa errejistratzaileak inbentatu ziren.

Garai hartako testuinguruan, ikasketak ez zuen garrantziarik, eskolarik egokiena esperientzia bait zen. Iritzi berekoa zen Ford bera horretan. Ihes egin goizean eta oinetakoak eskuetan zituela eta zeuzkan ondasun apurrak pardelean, Detroit-eruntz zuzendu zituen bere oinak. Laister aurkituko zuen non lan egin. Langile ona zenez, nahiko ezaguna bihurtu zen eta lana hobetzera eta gehiago irabaztera iritsi. 1877.an ezkondu zenerako «Edison Illuminating Company» zeritzon lantegian erantzukizun handiko zeregina zuen.

Teknikari bezala aintzakotzat hartua zen, baina bere «asmaketak» lagunengoz iritzi parregarriak zirela-eta (gasolinazko autoaren modelo, e.a.) bere lepotik egiten ziren barreak areagotu ziren. Edisonek, ordea, kontutan



hartu zituen Ford-en proiektuak eta bata bestearekin elkartu ziren.

«Ford Motor Company» beste lagun batzuekin sortu eta «T» ereduak mar-txan jarri zen. Baita «propaganda» apur bat erabili eta erein Ford-ak salgai ipini aurretik! Asmo hauekin lasterketa batzuetan sartu kotxe berri hori eta, jende guztiaren harriduraz, ia beti txapeldun irten ere. 1908an salgai ipini zuen autoa eta segituan saldu ziren ia bi milioi.

Etekin ugari atera zuen kotxegintzatik. Nolatan? Lana emanaz, gauzak merke asko salduaz, merkatua zabalduaz eta egoera erosoarekin eskuratuz, dirua eskuetara etortzea berezkoa da. Hau zen Forden merkatu pentsakera eta filosofia, gerora hainbeste hedatu denaren aitzindaria. Jokaeraren askatasun osoa, Estatuaren aldetik eskuhartze eta sartzerik gabe.

Horretarako bost auzi elkar lotuak hartzen zituen kontutan: hegoamerikarrei milioika eman behar zitzaizkien autoak; baldintzak betetzeko, kotxe merke eta iraunkorrak; teknika berriei baliaturik multzoka eginak izan behar zuten; salneurriak merketuz eta langileei jornalak igoz zabaltzen da merkatua, erosteko erraztasuna gehitzen bait da.

Ordurarte automobilgintza gutxi gora-behera erdi-eskulan bezala hartzen zen. Baina milaka batera egin nahi baziren, denborarik ez galtzea zen derrigorrezko. Teknika berrituz, lehen produkzio katea sortzen du 1910.ean.

Langile bakoitzari (trebetasun handia edukitzea ezinbestekoa zen) egin behar bakarra ematen zitzaion. Langileei katean zetozkien piezak eta zatiak eta ahalik eta denbora gutxienean kotxeak osotzen zuten: batek gorpila jarriko zuen ardatzean, besteak torlojuak sartuko zituen, eta horrelatsu lerrokada bakoitzean. Bukatutako kotxeak, bizkiak bezala, berdin berdinak ziren.

Baina sistema honek akats asko zituen. Lehenagoko lan egiteko erak langileari bere nortasuna ez zion kentzen. Fordenak berriz, langilea abere antzeko bilakatzen du, behin eta berriro ordur-ordu, egun, aste, hilabete eta urteetan gauza berdina eginez. Lan mekanikoa, astuna eta makina bat de-

soreka eragin dituen langileengan.

Bere bizitzan zehar izan zituen ha- maika gorabehera gaineraz. Protestan- te izan arren, puritano zen hezurmui- neta-raino; nahiz eta aurrerakuntzak sortu bere lantegietan, ez zen sindika- tu-zale eta bai beltzekiko arrazista; Lehen Gerrate Mundialean sartu zen leporaino eta 1924-27 jasoaldia lortu zuen kotxegintzan baina, ustekabean, 29.ean izugarritzko porrota jasan zuen New York-eko Boltsak, «Kra-k» deitu- tako hartan, eta baztertutako automo- bil eta hutsik geratutako kaleetan lo egiten zuten arloz betetako agertu zen Amerika.

Ford berak, beste bere belaunaldiko lantegi jabeen tankeran, aurrea har-

tzearen gogo eta kemenetan sinesten zuen. Baina Roosevelt presidentek lortuko zuen porrota gainditzea «New Deal» (Jokaera Berria)ren bidez, ba- koitzaren norberekeria neurrituz eta lantegi-gaiak legepean ipiniz, Ford-er iritziak ezeztatuz.

Ford horren aurka jarri zen baina ordurako aldakuntzek aro zaharkitu batetako gizona bihurtu zuten. Bere jarraitzaileek eraberritzeko dohai apartak erakutsi dituzte eta «Ford» etxeak, multinazional tankeran, kolo- nizatzen du-edo mundu erdia.

J. Arandia

mendiriz-mendi

30 orduko ibilaldi bat

Mendiari buruz eta mendiko gauzei buruz anitz gauza idazten da gaur egun, halako trabesia dela, honelako martxa edo ibilaldia dela, mendiren batetarako igoera dela e.a. Guzti hau ikusirik bi lagunek egin dugun ibilal- dia ere aipagarria dela uste izan dugu eta lerrotxo hauek idaztea erabaki.

Nire asmoa, arrats euritsu batetako burutada bat izan zen. Betidanik izan dut mendirako joera edo zaletasuna eta honek antola erazi zidan ibilaldi hau. Zaldibiko Depositutako Erramun Irastortza naiz, aski ezaguna dut Ara- lar mendia eta mendizale orori gerta- tzen zaion bezala, Aralar ezagutzeak inguruko mendiak ezagutzera bultzatu nau aspaldidanik. Lehendik ezagunak nituen bai Aralar, bai Aizkorri, bai Urbasa eta bai Beriain, baina guzti ho- riek saio batetan egitea burutu zitzaiz- dan eta honela hasi nintzen asmo hau aurrera eramateko beharko nituen gauza guztiak prestatzen.

Ibilaldiaren luzera zen lan hau gain- ditzeko kakoa, oztopo «bakarra»; ho- nek beldurtzen ninduen.

Hala eta guztiz ere nire asmoarekin jarraitu nuen eta ibilaldi zehatz bat markatu ondoren behar izan nezakee- na biltzen hasi nintzen, gutxi gora-be- herara 30 ordu beharko genituela kalku- latuz. Oinetako arinak aukeratu nituen (oso garrantzitsua) eta janik ez, zama arinagoa izatearren. Hartu nituenak arre- ta askoz aukeratutako «farmazi elikagaiak» izan ziren: esne eta protei- na hautsak, bitaminak, glukosa eta mineralak (urarekin nahastekoak, ho- netatik ez bait zitzaidan faltako). Di- rua hartu nuen, herri eta mendateeta- ko tabernetan berotik jan ahal izateko:


otartekoren bat, salda...

Neramanaz gain, badaezpada ere, Otzaurtetik San Adriana bitartean gu- re zain egongo zena aurkitu nuen, erroparik alda edo jantzi nahi bage- nuen, dirurik behar, erretiratu nahi bagenuen, edota abar. Ondo etorri zi- tzaigun, galtzerdi eta oinetakoak alda- tzeko eta jaten geunden bitartean ter- tulia lagun bezala; zer esanik ez, ja- rraitzeko emandako animoa oso beha- rrezkoa eta eskertzekoa izan zen.

Dagoeneko bada laguntzaileaz hitz egiteko garaia: Zaldibiako Olei-Berri- ko Jexus Mari Asurabarrena, hau ere mendizale eta kirolzale amorratua.

Nire ideia- ren berri aipatu eta berehala gustatu zitzaion; tarteka bazituen kez- kak, neuk bezala, baina edonon atzera egin ahal izanik, saiatzeko behintzat prest. Ondo prestatu zen hau ere, foo- ting eta mendi irteera luzeak eta ugari eginaz. Ez zen damutu.

Ibilaldi honen prestaketaren beste azken dato batzu ere eman behar: sei hilabete lehenagotik hasita jardun nin- tzen bidea ikasten, %15 bat inoiz ibili gabekoa izateaz gain (Lizarrus- ti-Otzaurte eta Iturmendi-Beriain), denborak, nekea, gaueko zatia (ilargi bete- pean), bidea e.a. ondo zehaztu na- hi bait nituen eta dena elkarrekin lotu.



Tartean, bi hilabete edo ilargi-bete aurretik saiakuntza bat egin nuen: gure herriko Mikel Sukia eta biok irten eta Lizarrustiren ondorengo baso zatian galdu eta Etxegaraten irten beharrean Urdiaingo igerilekutan azaldu ginen; denbora asko galdu genuen berririo bideratzen. Etxegaraten hiru ordutako atzerapena generaman. Honez gain, zerua erabat estali zen lainoz, eta ibiltzeko giroa hobe ezina bazen ere, gauez ilargi betearen argi eskasaren pean gutxien ezagutzen nuen zatian ibiltzeko egoerak okerrera jo zuen. Arrazoi hauek zirela eta atzera egin genuen. Ondorengo ilargi betean euria egin zuen, beraz ez ginen irten ere egin.

Azkenik, iritsi ziren eguraldi eta gure egoera egokiak (lehen aipaturiko 6. hilabetea). Gure buruan zeuden Tolosako martxa eta beste zenbait ibilaldi. Tolosako hau, adibidez, 14 ordutakoa da eta jende gutxi izaten da, urtero, amaitzeko gauza, eta guk gure buruari gure ibilaldia bi aldiz Tolosakoa eta gehiago zela esaten genion. Hala ere beldurra eta beste sentsazio guztien gain baikortasuna nagusi zen eta ibilaldiari ekin genion.

Egunsenti aldera, goizeko 7etan zehazki, ekin genion. Ibilbide osotik ezagunen genuen zatiari hain zuzen ere: Gaztelupeko aterpetik ateraz, Atau, Goroskintsu, eta Ondarren barrera berehala heldu ginen Baierrretara, gaur egun oso ezagun dugun La-reoko ur-putzuaren atzera. Handik beste ordeurditxo bat nahikoa Allekun barrera Lizarrustira iristeko. Abiatu ginenetik lehendabiziko aldiz hemen pasa ginen asfaltoaren gainetik, bide laburrean pasa ere, errepidea zeharkaturik berehala bait ginen berriro mendian gora.

Hurrengo saioa genuen zailenetakoa, ez aldapa haundiak zituelako, ez harrikari haundiegirik zuelako, galtzeko arriskua zegoelako baizik. Izan ere, basope honetan ibiltzea lainopean ibiltzearen pareko egin zitzaidan ibilbide hau egiten saiatu ginenean lehen aldian (hementxe galdu ginen Mikel Sukia eta biok). Oraingoan orde, lortu genuen Nafarbason zehar zuzenean

Etxegaratera iristera. Bigarren aldiz errepidea zeharkatu beharrean ginen, baina hori egiterako ordulaurden inguruko atsedena hartu genuen otarteko on bat jateko.

Hurrena Otzaurtera abiatu ginen; beste ordu bete behar izan genuen gutxi gora-behera. Ondoren, ibilbide osoko gailurrik garaienetara iristeko saioa zetorren eta aurrean zer geneukan jakinik, Otzaurten barrera, San Adriandik iraganaz Aizkorri gaineko ermitara igo ginen, handik, puntarik punta, Aketegi eta Aitxurira iristeko (Aizkorri mendikateko mendirik gailurrena). Hemen hasten zara gogoratzen zer arraiotarako balio izan dizun eta balio dizun hainbesteko sufrimenduak, izan ere, berriro jeisteko igo-tzen aritu... berriro leku beretik jeisteko aritu ere.

Aitxuriko puntatik, zer gertatuko etabioi eroaldiak eman-eta, presaka hasi eta korrika jeitsi ginen San Adriandik iragan eta beste kilometro pare bat beherago bitartean. Gure zain egongo zirenen bila gindoazen Otzaurtera bidean eta tarteko artzain txabola batetan zain aurkitu genituen. Tertulia alaia, indarberritzea eta platerkada eder bana sabelean.

Berriro, atsedenean ondoren, Otzaurtetik errepidez Altsasurantz jo genuen, Iturmendira iritsi ginen arte; handik berriro mendian gora. Jadanik ordu pila bat generaman ibilirik eta egunsenti orok duenez bere iluntzea ilundu egin zigun; beraz, handik gora ilunpean igo behar izan genuen, Andimendi osoa pasa gauez, Lizarraga gaienean errepidea zeharkatuz ekialderantz jarraitzeko; Goñi gainean Berriainerako norantza hartuz mendebalderantz berriro ere. Berriain gaineko San Donato ermitan beste atsedenaldira bat hartu eta hemendik irtetera gindoazela hasi zigun eguna argitzen.

Goitik behera Unanuara jeitsi ginen eta hemendik zehar zehar Lakuntzara. Eguna argitzearekin batera, honek alaitasuna besterik ekarri behar ez bazigun ere arazo txiki bat sortu zitzaigun: ihintza zegoenez oinak busti eta egosi egin zitzaizkidan azken zati honetan. Honela Arruazu eta Uhar-

te-Arakila jarraitu genuen. Uhartan azken malda gogorra igotzeko indarra hartu genuen beste atsedenaldira txiki batez.

Aipatu malda hori San Migelerainokoa zen eta handik aurrera ordu batzuetako zehar bidea besterik ez zitzaigun geratzen: Guardetxe, Pagomari, Desao, Errenaga, Beaskin, Doniturieta, Enirio, Oidui (hemen bezperan eginiko bidera itzuli ginen) eta etxera, Gaztelupeko abiapuntura.

Honela amaitu zen «abentura». Une hartan leher eginik sentitzen ginen: irten ginenetik 34 ordu eta 50 igaro ziren; denera 4 ordu eta 10 minutuko atsedanak kontutan izanik, ibilitako benetako denbora 30 ordu eta 40 minutu bihurtu ziren. Ez zeuden hain urrun nire kalkuluak. Egun bateko goizeko 7etatik hurrengoko arratsaldeko 6ak arte; egun t'erdi. Eta gu biok gustora, noski.

Azken detaile bat: iristean, nik oinazpiak zeharo minduta nituen eta Jexus Marik giharrak erabat nekatuta; hau zuzenean etxera joan zen eta ni Gaztelupen gelditu. Afari merienda-txo bat eta ustekabeen bi ordutako atsedenean ondoren neke ia erabat desagertu zitzaidan eta oinazpiak berriro; Ez dakit bainan dirudienez entrenamendu, dieta, preparaketa, antolaketa eta elikagaien aukeraketetan ondo asmatu nuen; bai nik eta bai Jexus Marik berak ere hurrengo egunean 10 ordutako loaldi jarrai eder baten ondoren jeiki ginenean ez genuen dagoeneko aurreko lanaren aztarnarik (agujetak, neke...) : emaitza oso positiboa. ●



KEMEN, TAILERRAK

AGENTZI OFIZIALA

Alfa Romeo



Nafarroa Etorbidea, 53

Tfnoa: 88 52 00

20200 BEASAIN

ERRAMINTA ETA KIRTENA BETI,

Hilda gero ere «Pello»

Martxoak 22 zituenean hil zen Joxe Antonio Luluaga «Pello Kirten» Legorretakoa, ez Donostiako besteei parregiteko hobia zen hura 85 urterekin eta ez ginen enteratu ere, asiloan jaso zutenak eskelarik ere ez baitzieten atera. Goian bego-edo.

«Pello Kirten» bezala ezagunago (ez kirtena zelako) izanaren biografiatxo bat egin genuen 2. GOIERRITARRAn. Bera elkarriketatzea okurritu ez balitzaigu, jakina, harenak hala beharko zukeen: beste asko bezala erdi-anonimatoan eramango zuen segadak. Hil zen gizona, ez bere izena! Hona hemen orduko hartan agindu genizuen bere bizitzari buruzko bi pasadizu mamitsu eta elegante.

**Jon Arano
Mikel Aramendi**

Kondenatu bearren

«NIK BETI DET KONTUE. Gerra denboan-e jun nitzen jai baten, paseon, Erreterria. Donostin bizi nitzen, apopillo bainean Donostiko kontratista batekin lan eñez, etxe bat eiten.

Abittuko nitzen Erreterria ta, gerra zebillen ordun, auntza alleatu naizelaik kargu artu zien: «Ep! Etorri onea!», esan zien soldaduk, gorrik. «Ze zabiltza zu emendik?»

—Ementxe. Jai da ta denbora pasa!

—Ez dao emen ibiltzeko deretxoik garai ontan!

Gero, goardik artu eta eaman niñuten Kontsejua. Zea izango nitzela, ixpiontzan zebillenen bat. «Komo sospetxoso!» eaman niñuen. Klean aurkitu niñuela eta ea nunbaiten sospetxoso bezela ateatzen ote nitzen. Medikua etorri zan, sudur-muturra alkolorela zuna. Errekonoizimentua pasa bear gendula. Alkon-dara kenduazi eta ikusi zizkin danak. Emen, beso eta

bizkar arteko ontan marka neuken, argiñekin lanen bainebillen, Donostiko monte Ulian azpiñ, goardien koartela altxatzen. Gorrittuta neuken, ortaz.

—Uste konkretamente anduvo con fusil.

—No señor! Yo soy obrero cantero. Peon, por la piedra tengo marka.

Ezetz eta ezetz. Fusillakin ibili izana nitzela. Bar-katzeko bada, nik, baiño ezetz. Gañeraz testiguk nitula. Ola esan nion. Eta an ibili nitzen kondenatu bearren.

Beno, poltsikun nitun diru guztik aterazi, baita paper guztik. Paper bat neuken, Donostin zeon, ba, «Solidario» esaten ziotena (STV?), euskalduna. Paper ori neuken eta beste bat «Comunión Espiritual», Pazkoako ein berrie eta ola, bi aik nitula ezin niñuten bada kondenatu. Ibili zien handik eta emendik...

Besaburuko markakin ibili nitzen gaizki, baño arrikin egiñe, ez bestela. Nolabait; komunistatako

kefe mayorra an zeon, urrutira gabe, ari abixatu eta arek zeuken koartora sartu azi niñuen. «Oiga usted: tiene que declarar y de esa declaración se salva o se condena». Ori esan zien.

Ondo zala esan nun. Pixtola zeukan gerrin eskillaragoran zegon pixtolero batek, iltzeko zeuden matoi oietako batek. Arek barrura sartzeko aindu zin. Kefea an barrun nula. Aiton aundi bat, mutur beltza, gorritako kefe mayorra. Justifikantea. «Una vez hecho el reconocimiento se le ha encontrado como sospechoso. Ha hecho una escapada grandisima usted. Pero me parece salvara Vd. la vida».

Ordun artu nun poza! Bestela afusilatu. Bai ba, an zegon bestea pixtolakin. Azkenen libratu!

—Ya puedes ir a casa si quieres.

—Mutxas grazias, onbre, mutxas grazias!

Eta pixtolerok ezin bota ba ni! Ala, bera jeixteko agindu zin pixtolerok. An beran zeuden gaueko guardian egoten dienak, sere-nok, euskaldunek gañea.

—Ze abil?

—Kondenatu lenago eta bizirik atera naue oraiñ. Etxea juteko baimena eman dit nagusik.

—Etxea abitzen baaiz biden botako auea!

Botako niñuen gañea. Kaminiotan-ta jarrita baitzeuden gorrik. Toke-keda.

—Sartu adi kalabozon eta goizeko zazpitan diana joko die eta nik irikiko diat atea. Sartu ai kalabozon bestela ilko aue, be(reha)la ilko auea.

—Beno, ori-re esaten diazu? Sartu giñen kalabozon, etzanda eoteko alako-xeko maai gixako bat, ool zabal bat. Burni barrakin leiok, pixtaik ateatzeik ez. Atzea krik-krak!, itxi zun atea. Goizeko 7ek ingurun atea krak! iriki zun da, «oaiñ muittu, oaiñ! Segi etxea!». Esan eta ein. Atea nitzen da, «zorionak ematen dizkizut egin dirazun mesererekin» eta eskertu nion majo.

Abittu naiz Errenderiko kalen eta ango kalek bukatu ba x o lenau kuneta zulon sartuta kotxe bat. Oñez nion. Ezin zula eta ezin zula atea kotxea zulotik. Lagunduko al nion ba esan nion kotxezaleri.

—Si onbre!

Eldu nion atzetik eta rrau! atea gendun. Nora nion galde ark eta Donostia nijola ba nik. «De ke parte?». «Pasando la via Santacatalina, ahi!». Igotzeko ba. Sartu barrua eta ni aikin. Gorrik, gorritakok zien, baño mesedea egin nien eta neri etzien galdetu gorrie



edo zurie edo zer nitzen eta eramanez. Nun geiditu bear zan-e baita abixau nik. Rrrra gelditu zien, jeitsi eta eskertu nien: «Muxtas grazias onbre! Me ha hecho la carida, uste!»\$. Adios ta adios.

Aik jakin balue ni ze ideatakoa nitzen...! Ni ez bainaiz gorritakoa. Berak ilko niñuen! Ez jakin eta laundu. Nik aurretik egin nielako, ori-re bai.

Partitu giñen eta gero banoa Amara. Amaran zeon bost tiro emanda Carrasco. Loyolako koarteleko koronel nausi mayorra. Aurki jenerala eiteko zeona. Kamino baztarren zeon, anak zabal-zabal einda. Masalitik, lepo-bularretik ta tripan bost tiro zitun. Ondo ilda zeon. Ne-arten, ari beida, «I ilda ago, baño nik ein diat eskaparea nik!». Gorrik ilda zeon. Ura il zuen lekutikan urrutu gabe neon ni apopillo, aurtaxeago.

Komeri guztioik ikusita nau ni, olakoxeko komerik pasata. Trantzea pasa gizonak ta geo larritasuna ikaragarri. Aiek ola ikusita, tratamendu artan! Biziaz etsita geldittuta nao, bai. Ilko nauela! Ba×o estularrie, an, Erreteriko juizioa pasatu bittarteko ure. Ure larritasune: bizie, bizie emate nijola!

Zein geiao segan?

ANDOAINEN GERTA-TAKOA. Kontratatik nebillen lanen da astelena tokatu, Tolosa etorri naiz peria, nola jai artu gendun. Ta perin nun ikusten detela Andoañen dien ia baserri aberatsenetakok. Txerri tratantek ta ganaduk dittuenak. Kami×o gaikalden terreno ikeragarrik. Nik eza-gutu eiten ang nagusie eta esan zin onek:

—Ze abil emen?

—Ementxe, gaur jai deu ta peria etorri naiz.

—Ni ezautzen al nauk?

—Bai, zu Andoañen alako lekutakoa zea.— Alaxe zala ba ark eta, nik, berriz, ze bear zun. Belarrak zeuzkela bada, belardi ederra ebaki zeikena. «Bakarrik natxiok lanerako; bestek kanpotik zebiltzek eta ko-

merik zeuzkat. Segako eiten ziak batek falta».

Orduko artan obran ai nitzela, «baña etxea ia altxa deu» esan nion. Obra gora altxa ezkerro erramue jar-tzen bai da, trapala. Ta erramue urrango astean bezela jarriko gendula. Ori jarri ezen ez dago zer egiñik.

«Aber, etorri adi ona. Arako auzkaldeko belardi ura duk gurea», esan zin bertaratutakon. —«Ederra ematen du arek!». «Zenbat eskatuko zenduke euneko?». Garai artako euneko duroa asko zan gero, e! Euneko duroa, mantene ta oia, aiek ebaki bitarte. Seittun eman zizkin. Urte asko da ori zala. Gerraurretik, bai oixe! 27 urte neuzkan-eta, arrapazazu zenbat urte.

Jai goize zan eta sartzeko barrua. Sukalden sartu gea eta olako kazuela zeuken. Arkumea patatakin gixauta. Ederra kazuelkarea! «Esei eta gosaldu ein bear deu elkarrekin», esan zun. Kafe pixkat artu eta artan baineon. Eseri naiz, biok elkarren ondon, txarro batetik sardoa ta ardoa botilla beten ekarri du mai gainea. Pamilya bai jatorra!

—Ortako, ni onea etorriko naiz bai! Itxoian zazu pixkat, aurki jarriko diogu erramue.— Baita jarri-re!

Urrango astean joan naiz berriro. Goizen goiz jun nitzten eta gosarie zeuken berriz-e, kazuela ikeragarrie jarrita: «Sartu barrua, gosaldu ein bear degu-ta». «Erramue jarri diogu, nagusi!», nik. «Ondo da, ondo da!». «Beno, gosaldu eta biar etorriko naiz erropa batzuk artuta».

Maleta utzi Donostiko abitazion, muda bat artu eta atzera Andoaña. Arekin naikoa izango gendulakon. Bai etorri -re ni. Ebi langarra ai zun, orde. «Ez dao gaur sega joateik. Emen su-baztarko esaten dan lana badauku eta emen jardungo gea gaurkoz». Ebikin ez baitau joateik. Urrango eunen-e ebie.

Irugarrenon orratio lai×ok altxatzen asi zien, euzkie ateatzen ta, «ba! eguraldik kanbiatu du!», antzeman zion eta «segako

giroa eingo du gaur», esan zun. Gosaldu berriz-e eta eman nittun trastek utzi koarton. Esan zin: «Beste morroia etorria deu». «Etorri berrie?: ordun banoa ni emendik!». «Et-et-et-et! Bion arten azkarrago ebagigo dezute!». «Nun da mutil ori?». «Ganadu-jana ekartzen da».

Geo etorri zan eta oooo! mutil puskea! 24 bat urte eta 90 kilo ingurukoa. Bozarroia oso-osorik. Usaie artu ta: «kanpotarren bat ba al deu emen!?!». «Bai! Belarra ebakitzeko piska bat lagunduko ote diun etorri zaigu au. Beno, beno, askatu ganadu-jan oiek». Askatu zitun eta ala.

Eune altxata zeon eta gosaldoren esan zun nagusik: «Segak pikatu bear die». Beste mutilla an bezela ta ni emen bezela. «Sega pikatzen ba al dakizu?», nagusik. «Pixkat», esan nion. «Arunzko mutil arek pikatuko dizu...». «Ez, ez, berea pika dezala arek».

Segak igoalak giñutzen. «Acia-Diamante» marka. Pikatu du bestek eta, «ori zemuzko segarie ote deu?», nagusiri esaka. Eoskor oitakoa. Nik aitu emendik berriz. «Ez dakik oaindik zein-ekin abillen; ez dakikenez ze arrakin abilleken!». An-kak zabal-zabal einda, an eon zan nausin ondon neri beira parriruri batekin. Pikatu nun, bizarra ebakitzeko mun pikature sega; sega pikatzeko primerakoa bainaz!

Arek ez uste, ez arek ta ez nagusik. Iru pasada eman nizkion. Arek pasada bat eman da neri beira, begik zabaldua mozoloz bezela. Zorrotz asko, ne-baittan, «oaintxe jarri det nik ederkik!». Etorri zait nausie ta, «nik-e pikatu det pa». Beno, bestea an zeon anka zabalik eta, «nai badezu ala sardoa nola ardoa artu». Ardoa, ardoa.

Ardo pixkat artu zaaton, erremintak sega amustuko balitz ta banoa. Nausik: «Orrek ang muga guztiñ berri badaki». Goien ebakita zeon eta etzeon galtzeik. Pendizeare bazan eta zokote ura-re ebaki bearra. «Segan nundik jarri naizu, aurretik ala atzetik?», nik.

«Aurretik nik», kankalluak. Aurretik baita errezena! Atzean baitzeon lan ein bearra. Zanga ebaki ta geo area bezela jun bear nun. Jutea besterik etzeukan arek. Nik berriz, bueltan jun bearra arengana. Nik jarri nion arte eon zan eta badijoa aurretik, zaaaarra, zaaaarra eñez. Ni-re banoa.

Antzaman nion: «Ba! Ire joera au dek». Ez nitzten ikeatzen. Segi atzeti. Or bukatu bear arek eta ni orreaño. Irugarren mallan jo nion espiñe Orioko arraunek bezela. Txiaaa, xiaaa, xiaaa! Jotzen diot espiñe bere ankan ondoño sartuz sega eta geiao joko niokenean, geiao joko niokenean. Atzea beirratzen du, bere ondon ni, jotzen zun alaiña, baño alperrik! Abildadea nik euki!

Parre eiteko modun ibilli nun! Nai nun guztie ein nion. 60-63 kilo nik, baño ihartua, zaildua. Jinastaren indarra neuken. Ura motela izan, ez nere nerbioik. Ez ura, ni segarie! Ardorik probatzen-e ez nion uzten, edango zun arek gustoa bai×o! Jo egiten atzetik-eta...!

Nagusie beran zebillen ganadu batekin. Etxekoandrea itzulit. Geatu eta beira biñ-ala-bik. «To! Aik ona beida zeudek!». Bukatu gendun, amabit'erditako, baño jota, e! Egorra eman-azita. Bazkaitera jun gea eta nagusie, arrittuta nere joerakin, mai erdian esaita. Morroia or eta ni emen bezela. «Belazea ebaki dezue?». «Bai, ebaki deu», biok batea.

—Au zemuzko segarie dala iruitzen zaizu?. Nere-gatik.

—Nik uste ba×o ohea. Ni baño askoz geiao da au!». Aitortu ein bear etxeko morroiak. «Au ez da, ez, muturrez aurea beidatu eta ezautzen dan kristaue!». Arrittuta nausie nere sega-ke-takin.

Andik aurea, au edo oi ebaki bear zan garaian, bakarrik ekiten nion segan. Morroia bere ondon artzen zun, bai baizekin alperrago eta motoloagoa zala ura!

Larru-gorriek sutzen «Pello Kirten»

Itsasondotik, 1980'ko
abuztuaren 22'an.

Nere adiskide zintzo
Basarri:

Berriro emen natorkizu
ba baztarrak enredatutzero.
Atzo, illunabarrean, nere
etxean izan nuen Legorreta-
ko Pello bere 75 urterekin.
Auxen esan zidan. «Esaizu
Basarri oso ixtimatu na-
goela nere bertsoak argita-
ratzen ditualako. Basarri,
zu ta ni, Trinidad Santisi-
ma bezela gera. Nik ber-
tsoak asmatu, zuk Basarri
bialdu eta ark argitara
eman. Iru pertsona diferen-
teak bañan Jaungoiko
egiazko bat. Au da: BER-
TSOA».

Dalako Pello ori erabat
bere onetatik irten da dabil,
zorioneko Donostiko on-
dartzako erdi larru gorriak
dirala ta. Su artzen du pen-
tsatu utsarekin. Berriro ber-
tsoak moldatu ditu ta zuk
argitara ematea nai luke. Ia
ba mesede ori egiten dio-
zun. Ara bere bertsoak:

1
Ondamendi bat besterik
ez du
gure arteko gustuak,
uste gutxinez uzten
bai gai tu
sokarik gabe lotuak.
Seigarrengo mandamentua
Jaungoikoari ostuak,
modu orretan ez dira izaten
kristau garbi ta justuak.

2
Paseatutzen asiak dira
jantzi guztiak kenduta,
negu partean oztuko dira
larru gorrian jarrita.
Dendan erdiak itxiko dira
erropak ezin salduta,
emakumeak askoz obe du
soñeko luzek jantzita.

3
Ze ein bear dute datozten
gaztek
oiek ola ikusita,
eskola ona galduko da ta
txarra berriz ikasita.
Arrokerian asten ba-dira
lotsa guztiak utzita, gura-
sontzako maitetasunez
noiz egindo du bixita?



4
Gipuzkoako kapitala da
Donostik daukan izena,
biajanteak esaten dute
bera degula aurrena. Lendi-
kan beti ori izan da
garbia eta txukuna,
ez du merezi playan sartze-
rik
bide gaiztoko pertsona!!

Bertsoak zerbait orraztu
nai nizkion, bañan Pello'k
iñolaz ere ez du ori nai.
Dauzkan urteak gogoan
izanik, ez da arritzekoa be-
retik ez irtetzea.

Jaso besarkada bero bat.
Zure, zurea, J. Lete.-

Pello. Legorreta
1980

XR2i

FORMULA BERRIA



MUJICA
Automobilak



- FORD Mekanika-Seguratasuna: Zure Ford berria babesten duen garantia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zerorrek luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.

- Herdoilaren aurkako 6 urterako garantia
- Bizia duen arteko garantia
- Merkatuko garantiarik onena.

Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN

AZARIA BAINO EHIZTARI BIZIAGOA, BERTSOZALE BEZAIN BERTSOLARIA (II)

Bertso ganbara hustu ezina, Lorentxo Sukiarena

*Aurrekoan Lorentxo Sukia zaldibitarraren ehiztari
fazeta jorratu genuen. Honakoan Goierriko lege
zaharreko bertsolarien aztarrenen bila joan gabe ez
genuke geratu nahi.*

*bertsolari mitiko haiek merezi zuten lekuko
aparta, idatzi gabe utzi zituztenen ahozko transmisioan
fin arituko zaizu.*

Bertso kontutan hasi bezain pronto, Altzanberri izenik gabeko famosoekoarengatik egiten diogu galde. Zein izan zen Altzanberri hori? «Hementxe, Zaldibiko Ernaitza-Gakoan jaioa, Gaztelu-azpian, orain pinudia dago, hantxe jaioa. Egun batean elurra egin eta tximista eta baserria erre zitzaizen gauez eta emakumeak kamisa-hutsean ganaduak ahal zuten bezala atera eta Ernaitza Behekora etorri ziren bizi izatera. Komunio haundie egin zuenean Frantziara joan lau urtez eta handik etortzean ikusi nuen, perian izan Billafrankan eta Arresenean ikusi nuen bertso-tan. Otordu garaia izango zan eta jatekxan erreparatzen zion amona txoratzen, harek bota zituen bertsoekin». Halakoak botako zituen!

Buruz dakizki Lontxok amona hari bota zizkionak beste hark eta halaxe jakinerazten dizkigu:

*«Denboraren ajia leike
nahiz izan pertsona sanona
baldin gazterik hiltzen
ezbada
zahartu biharra danona,
urtian karga jaso ezinik,
ez da izango lan ona,
neronek ez det ikusi, baina,
jakingo dezu, amona.
Amonatxo hau ikusitzen det,
bi makilatxo hartuta;
baldin pausorik aldako badu
anparoa bihar du-ta.
Buruak ia lurra jo dio,
bizkarra, beiz, konkortuta,
gazteak, hortik kontsideratu
zer datorkigun zartuta».*

Bertsolari polita zen, batere eskolarik gabekoa. Haundia zen bertso-

tan. Frantzian artzai ibili ondoren azari harrapatzen eta horrela ibiliko zen. Legorretara Uztapide eta Baserri eraman zituzten, «Jainkoa»-ene»ara. Hil zen «Jainkoa», aitzera izango dezu. Altzanberri bertso-usaiean ibiltzen zenez, meriendatzen ari omen zen han eta etxeko nagusiak Uztapide eta Baserri esan ere egin omen zieten: «Hemen bada bertsolari polit bat; Toreatzen badezue hasi ere egingo da». «Hainbeste ere egingo degu bada» edo hala-moduzko bat ere bai kontestatu gureak aguro eta «hiru edo lau bat botako dizkik baina laister egingo dik poto», besteek.

*Altzanberri hitza
janarazi:*

*Santa sekulan ez det izandu
gehiago naizen usterik
ezta, ordea, bihar danian
erantzun gabe usterik;
Gizonak nola esan lezazke
era hortako huskerik?!*
*Altzanberriren pototik ez du
inork edango esnerik.*

Adituko zenuen bertso hau. Gero saio ikaragarria egin omen zuten. Galdetu omen zitzaion bi bertsolari haundiei eta haiek, ona zala! Artzaia, Altzanberri, Pernando amezketarra bezalaxe.

Bertsolari historikokin ari garen, aspaldiko mendeetako Joan Inazio Iztuetak Aralarren lehoiak bizi zirela aitatzten zuela esaten diogu eta horretarako ere badu memori handiko gizon prestu honek. «Lehen lehenagokoak esaten dutenez, lehoirik ez dakit baino artza bai. Artza-ren istorio bat bada Altzanberri kontatakoka. Aurretik, egun pasan



Patxi Erauskin eta Uztapiderekin



Lontxo, bere baserriko atarian

ibili dira Tolosako peritik eta etxeko bidean gauez egin Alegria «Jainkoa» eta bie. Jeitsi dira trenetik, tabernan sartu eta gazta eta ardoa jan eta edanaz hurrengo tren hartuko zutela bada. Baina hartu beharreko trenak ihes egin. Hala kanta omen zuen gure herritarrak:

*Biaje ederra eman du
nik joan behar nuen trenak
nere bihotzak bihar goizean
izango dituen penak
atarramendu onik ez
parrandero nabarmenak
besterengatik jardutzen
gaituk
eta gu izan okerrenak.*

Halaxe jarraitu omen zuten bertso-tan eta «Artza» izengoitia zuenak jarri omen zion puntua: «Animalietan zeinek du itsusianaren antza?» Altzanberri kontestatu:

Konparaziorik gabe/neretzako artza
pauso baldarra du/eta
itsusia dantz
erregalorik onena/zorria
eta partza.

Horrelaxe atera zitzaion, besteak
«Artza» ezizena zuela ez jakin izana-
gatik! «Artza» horrek, ordea, horre-
gatik propio jarri puntu hura! Or-
duan botatakoak gogoan gelditzen
direla. Bazituen gehiago hark.

Beste batetan, egun-pasa egin on-
dorenean, «Garratsa» esaten zioten
beste artzai batekin omen zen La-
rraitzen, ezagutu nuen nik zelako
sujeto hura; eta pattarra edaten hasi
omen ziran, aidanez; etxeakoan-
dreak gehiegizkoa izango zan pata-
rra-botila mahai gainean utzi, suka-
dera joan eta «Garratsa»k zer egin
du eta hustu. Gero komeria! Pix egi-
teko zutitu da eta ziplo! lurrera be-
hin eta berriro! Altxanberrik altxa
omen zuen kantauau entonatzan
zuen bitartean:

Hara gauza bat esan
behar dizut
nere lagun Garratsa
mendian polita zera
tabernan oso narratsa
gurdia gehitxo kargatu dezu
okertu zaizu ardatza
mendi-bidean pasa beharra
daukazu
gaurko arratsa.

Tipoa zan hura! Eskolarik bate-
rez, artzai eta bertsolaria. Gaurkoak
estudiatu eta letratuak dira, ordu-
koak ez, ez zen eskolarik eta! Al-
txanberri plaza-gizona ere ez zan.
Tabernan gehienez. Beno, Zaldibin
bai behin! Gerraurrean izan zen: Ze-
pai, Txapel eta hirurak. Zepaik ez
zuen ezagutzen hura! Zaldibin doto-
re aritu ziran haiek, baino hemendik
Itsasondora joan zirenean astindu zi-
tuen Altxanberrik.

Ardiekin suerterik ez eta suerte-
rik ez tokatu eta ailegatu zen ez da-
kit zer saldu behar izatera edo zer
gertatuko zitzaion, gauza onik ez
behintzat. Hala, hemen kantatu zio-
ten, ez dakit Txapel izan ote zen ala
Zepai: «Hemen daukagu ardirik ga-
beko artzaia». Nik neronek aurrene-
ko eta azkeneko kontue bakar-baka-
rrik hartu. Iraolak eta hauek ere az-
kenekoa jarrita. Esan niena gero,
aurrenekoa ere banekiela. Hala bota
zuen:

Publikoaren aurrean hau
da hau lotsa
jaso detana (...)
Otsoari ere ez diot opa
neri gerta zaidana
Bit tartekook falta dira.



Jesus Eskisabel, «Jainkoa»

Da hola. Halaxe bota zuen desafioa
Altxanberrik, halakoxekoak esan
baitzizkioten.

«Ea bada zein geran gehio gaueko
hamarretarako!»

Esan bezala, Itsasondora joan, he-
men bertsolari gutxi zan artean, ha-
si dira eta Zepaik:

«Ikusiko degu gaurkoan zein ge-
ran biktorioso».

Altxanberrik Legorretako Antsu-
si, edo, joño!, nola izena du —gerra-
te guztian elkarrekin ibiliak gara—,
Antxusitar hark hartu zizkion aurre-
neko bi puntuak, azkenekoak ez.
Bertso latza izan behar zuen horra-
tio, aurrenekoak badaude liburuan
jarrita:

«Arabatik Bitori
Naparroatik Planpona
Lantegi hontan gerta liteke
Azkarra uste ta tontona

Zerorrek aita ez baziñuken
ez zaidan buruaraziko
berak nahi ez zuenik
besteri ez egin lehendabiziko.

Zepai segituan umildu.

—Zer moduzko bertso-auspo
zen Zepai?

—Haundia! Gutxi izan dira parte
hontan hura bezalakoak. Entierro-
koan egin zioten omenaldia lekuko.

—Zaldibi-aldean ba omen zen
beste bertsolari kasta-zaharko
bat.

—Zein? Patxi Erauskin izatez ge-
ro. Baina hark ez zituen aurpegira
botzen, idatzi bai, hori bai, ber-
tso-paperetan-eta. Urte batetan iku-
sita nago ni hemen komeri bat, San-
ta-Fe festak ziran. Bazen Amezketa-
ko Larraitzen bizitako Inazio Anto-
nioren semea, Joanito hain zuzen.
Honekin hasi zen bertsotan Arre-
se-enen eta halaxe esan zion Eraus-



Ezkerretik eskuinera:

Sukia, Lazkao-txiki eta Lasarte

kinek: Ez dakit nongoa dan halako
ume «granujoa» bukatzen zuelarik,
eta besteak erantzun:

Hau ere garbi esango dizut
Nik Juanito det izena
Zaldibin jaio eta Abaltzisketan
Morroi bizi naizena
Berez flakoa dena
Ezin egon ba gizona
Ni eutsitzeko bota
behar dituzu
Gutxienez mila dozena.

Honi kontesta zion eta nik gogoan
hartu. Etxeratu nintzen 12ak jota
eta ohean hura kantari. Anaiak esan
zidan: «Ño! Hori gogoan hartu dek
ba hik!». Eta gero soldadu joan gine-
nean, Logroñon tokatu elkarrekin
egotea, Joanito hori eta biok; Nik
bertso hori bota nion behin eta be-
rak ere esan zidana «gogoan hartu
duk eta bertso hura». Holaxe izaten
dira gauzak. Orain ez dut lehen be-
zain ondo gogoan hartzen.

—Esto... eta Zer moduzko
erraminta zen Pello kirten?

—Ba, je-je, ondrosoa.


—Ta Jainkoa?

—Jainkoa ere ondo. Poliki egiten
zuen. Ez, e, gaurko zerak bezala bai-
no.

Katarroarekin dagoela eta behar
bezalako deklaraziorik ez egindako
susmoa gordetzen du Sukiatarrak,
nahiz eta tradizio orala berritzen ho-
beak aurkitzen zaila izan, eta hu-
rrango batean gehiago eta hobekia-
go esango dizkiguna hartu morra-
lean eta agurtzen dugu.

Mikel Aramendi

Argazkiak.HABE



GABIONA

Errodamentuak, S.A. ..

F.A.G. eta G.P.Z.en banatzailea

Biltegi eta Bulegoak: GOIERRI KALEA, z/g.
Tfnoa: 88 45 00
Fax: 88 99 06

20240 ORDIZIA

DIETETIKA - SENDA BELARRAK

O S A K I

Elosegi Kalea
Tfnoa: 88 93 62
LAZKAO

Oriamendi Kalea, z/g.
Tfnoa: 88 79 46
BEASAIN



P - 21
Kafetegia

• Sandwitx eta gosari apartak

Goierri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

H E G O A
TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA

Munduate
Bitxitegia • Zilartegia

Kale Nagusia, 4 • Santa Maria, 3 • 88 12 53 Tfnoa. • ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA



LANCIA
ETXE - AZPI

- Goierriko banatzaile ofiziala
- Instalakuntza modernoak
- Berebil berriak eta okasiokoak



Tfnoak: 88 10 61 - 88 29 46

20216 ORMAIZTEGI

“Plantanoak”, edo larrialdi baten ume kontaketa

ESTRAINEKOA

Gure attona zenaren izena Patxi zen eta da. Nik ez dakit zergatik esan behar den “attona zena”, nire ustez attona dena bait da: dena (dagoena, badena) eta dena (guztia, alegia).

Attona Ataungo Ergoienan jaio zen aguro umezurtz gelditzeko. Gai-xoa. Eta badakit artzain ibili zela Etxarri eta Huarte inguru horretan. Gero Altzagako neskato pinpirin eta jakintsu bat ezagutu, eta Ordiziara ezkondu zen. Neskato hura, denboraren poderioz nire amona izango zena, zapata kaja batean dauden zenbait argazki horitutan ikus daiteke. Baina amonak, haietan, oso gazte jarraitzen du.

Txikitan, nik aitonari *Celtas* zigarroak erosten nizkion, baina ez pentsa horregatik batere zakarra zenik, ez horixe. Gainera oso maite nuen.

Badakit urtean behin Gasteizera moja joandako arreba bat bisitatze-ra joaten zirela. Hartan, bazkaltzen ari zirela, eserita eta majo jarritz, honela esan omen zioten:

— *Tira, tira, Patxi, madre superiora sartu dek eta altxa hadi.*

Baina attona ez zegoen xelebren haietara ohituta eta lasai asko jarraitu zuen bazkaltzen.

ARTEKOA

Attona Patxi maiz joaten zen Ataunera, bere jaiotetxera. Bizikleta eta opariren bat propio hartu eta aire. Sobra ere oso maitte zituen hangoak eta.

— *Kilo bat plantano ekarri ezaidan neska. Ataunera jun behar dinat eta—*

— *esan zion orduko hartan Anamari alabari.*

Attonak platanoak lehendabiziko aldiz ezkonberritan jan zituen: plantanoak (berak halaxe esaten bait zien) eta langostinoak. Orduan azala eta guzti sabeleratu zituen... Haiek jaten jakin ez eta. Ohiturarik ez.

Ilundu eta gero, berriz, ordua joan eta ordua etorri, eta Patxiren arrastorik bat ere ez.

Ordizian ama larritzen ari zen. Entzun zituen bizilagunaren erloju-ko hamaikak jotzen; entzun zuen goiko bizilagunaren txiza hotsa komunetik behera; entzun zituen gauerdiazen hamabi danbatekoak ere bai eta, estu oso, taxi bati deitze-ko esan zion senarrari; aitonaren bila joan behar zutela.

Attona Patxi haserretu egiten zen amari lapikokoa erretzen zitzaionean, edo baita sukaldean abelera txarra ikusten zuenean. Halakoetan “Neska hontza” edo “Hau den, hau, kuxidadea” esanez egiten zion demanda alabari. Baina oso maitte zuen attonak ama, eta horrexegatik abiatu zen ama bere bila, txarrena-ren beldur edo.

AZKENEKOA

Gaugiro ederra egiten zuen, isila oso; baina aitamen barrugiroa oso bestelakoa zen, nahasia oso. Eta taxisetik aritu ziren, attona non ikusiko, bazterrik bazter, zokoz zoko.

— *Itxoin, han zerbait badek, gelditu hadi, geldiTTU!!!*

Aurki aurkitu nahi izan zutena, berriz, kamioi bati eroritako lasto fardel bat besterik ez zen: Putza!

Halako batean azeri bat ere ikusi zuten, baina aitonaren arrastorik, ezta bat ere. Urruti batetik, hontzari gaizki sendatutako katarroaren ez-tul hotsa entzuten zen, baina attona-
rekikorik inondik ere ez.

Aitak “Lasai, Anamari, lasai” esaka lasaitu nahi izan zuen ama, baina oso nekez trankil zezakeen amaren barren nahasia.

Hartara, jaiotetxera iritsi bezain pronto, amak estu eta larri jo zuen zorionaren edo zoritxarrena izan zitekeen aldaba. Atarira, Juana aterra zen:

— *Neska, neska jakitea ba al dago zer egiten dezuen ordu ttikiotan hemen?*

— *Ene ba, ene ba, ba al dakin Juana?: atte ez den oraindik ageri.*

Eta Juanak, berriro amaren sendagilea balitz bezala: — *Baño, baño, osaba Patxi ohean zegoen neska, ederki asko zegoen hue lotan.*

Etixerako bidea, atzera, lasaitu eder hura hartu eta gero egin zuten, eta barretxoren bat edo beste ere azaldu zen amaren ezpainetara.

Patxi Zubizarreta



ARDIAK ETA BELARRA

Bein artzai batek atera zuan bere artaldea larrera, oso belar ona zegoen toki batera, ta ardieri esan zien:

—Larre ona daukazute gaur, eta naikoa jandakoan, etorri etxera.

Illuntzean etorri ziran ardiak etxera, ta nagusiak galdetu zien:

—Naikoa jan al dezute?

—Batere ez degu jan, -erantzun zioten ardiak.

—Zer bada?

—Jaten asten giñan bakoitzean: “Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago”, esaten zigun belarrak, etaaaa... egun guzian ibilli ta ibilli, ez degu ezertxo ere jan.

—Ez zerate tonto txarrak, -esan zien artzaiak -urrena ori esaten dizutenean: “Bertan goxo”, esan, eta bertan gelditu zaitzte naikoa jan arte.

Urrengo egunean juan ziran berriz ere ardiak larre toki on artara, ta belarra asi zitzaizen esanez:

—Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago...

Baño oraingoan ardiak erantzuten zuten:

—Bertan goxo, bertan goxo...

Illuntze artan naikoa janda itzuli ziran etxera.

Garai artan gauza guziek zekiten izketan: belarrak, sasiak, arbolak, eta animaliak ere bai. Bakar bakarrik goaldioak ez omen zekian. Beste gauz guziak bildu ziran goaldiori izketan erakutsi bear ziotela ta, ta erakusten asi ziranean, nola goaldiori erakutsiko, danak mutututa gelditu omen ziran. Orregatik geroztik gauz oiek danak ez dute geiago izketan egiten.

Batzuk esaten dute, oraindik ere ardiak eta belarrak itz egiten dutela alkarrekin. Ardiak larrera ateratzen diranean, belarrak esaten omen die:

—Aurrera ta goxoago, aurrera ta goxoago...

Ardiak ibiltzen dira pixka batean batetik bestera, ta azkenean:

—Beeee, beee... -egiñez, bertan gelditzen dira.

Beee, beee... orrek... “Bertan goxo, bertan goxo”, esan nai omen du.

Ataungo Joxe Arratibelen «Kontu zaharrak» liburutik

itzaltzen diren begiak

V. Lindsay

Itzultzaile:
belar-arbel

Arima gazteak ez daitezela itzaltu
ekintza kimerikoetan abiatu baino lehen
eta harrotasun guztia agertu
Munduaren pekatua da
bere semeak ahul haztea
idien antza izatea bere behartsuak
bigun eta begi itzaliekin
Ez gosez hiltzen direla

baizik eta amets egin gabe
gosez hiltzen direla
Ez ereiten dutela
baizik eta bakanegi hiltzen
Ez serbitzen dutela
baizik eta jainkorik ez dituztela
beraien serbitzuan jartzeko
Ez hiltzen direla baizik eta
ardiak bezala hiltzen direla

Joxe Madariagaren haga

* Behin batean estudiante batzuk etorri omen ziren Gasteiztik Lazkaora, beren oporrak pasatzera, eta pentsatu omen zuten Argintzauko Manueltxorekin parre pixka bat egitea, eta esan omen zioten Manueltxori, bagoikada bat gatz erosi zutela Pasaian, eta hasi zirela saltzen, eta harrak jota zegoela, eta zein soluzio ikusten zuen berak. Eta Manueltxok:

- Hori oso erraza daukazue.
- Ea ba, nola?
- Ba, mandoarraren esnea.
- Baina, mandoarrak ez du esnerik!
- Ezta gatzak ere harrik! Ez duzue horrelako parrerik egingo nere bizkarretik!

Beste batean joan omen ziren Lazkaomendi alde-
ra, eta juntatu dira Manueltxorekin. Eta estudiante
horiek esan omen zioten: «Ikusten al dituzu Ataunen
txingurriak harkaitz batetik besterapasatzen?».
«Bista oso motxa zeukat, baina haien oinotsa entzuten
diat».

Lazkaon bazen gizon bat, oso sonatua; Jenobebo
zuen izena. Fabrika handiko maisua zen. Behin ba-
tean, aurrean bi langile zeuzkan, bata oso leiala, eta
bestea oso alferra, eta Jenobebo agintzen zien lana bi
langile horiei, bata bukatu orduko bestea, eta leialak
erantzun: «Neri lana agintzen didazu, eta horri ez».
«Eske, hik lana egin, egiten duk, baina horrek agin-
duta ere ez dik egiten».

Behin batean, Zaldibiako mutil batek eskatu dio
permisoa. Ostirala zen, eta larunbatean Donostiara
joan nahi zuela izeba bisitatuz. Eta orduan Jenobe-
bok: «Izebarengana ez, baina beste horiek bisitatzea
joan nahiko duk hik; gu ere hemen gaudek astoari
sartuko giñonean».

Jenobebo hau oso parranderoa zen. Behin batean
joan omen ziren, San Joanetan, Olaberrira, festara.
Egin omen zuten sekulako afaria, eta gero etxera,
baina ordu txikitari, eta etxera zihoaztela, baserri
batean neskazahar bat omen zegoen, eta hara iritsi
zirenean, esan zien Jenobebo: «Hemen atea jo behar
diagu». Besteek: «Ordu honetan ate joka hasiko gai-
tuk!». Baietz berriz ere Jenobebo, eta jo dute atea,
eta goiko leiho-zirriztutik atera du burua neskazaha-
rrak: «Zer behar duzue ordu honetan?». Eta Jenobe-
bok: «Guk narrua behar dugu». «Ba, aurrean oraindik
ez dugu ardirik hil, eta beste batean beharko duzue».



Liburuak

«Ataungo Jolas Tradizionalak»

Pili Arin Baztarrika

«Antropologiaren Euskal Bilduma»
saila. Haranburu argitaletxea.
Donostia. 1985.

Pili Arin, Ataun San Gregorioko gazte honek betidanik izan duen aintzinako zaharren jolasak ezagutzeko jakinnahia eta harrekin oraindik gure artean bizi direnak hiltzen ari direnean, jolas aberatsak galduko ote diren beldurak eraman du batipat bere gaztetako jolasak biltzera. Ataungo auzoetan zehar, zaharrenekin eta bere ondorengoekin hitz eginez jaso ditu jokuok, ondoren, ordenatu eta Ataungo jolas tradizionalen bilduma bikain hau eskeintzeko.

Honela sailkatu ditu: zeintzuk eta adina (neskek ala mutilek jolasten zuten), zein motatakoak ziren (harrapaketa, jolas erritmikoak, apunte-riakoak, orekazoak, azareko jolasak, etab.), eta nola eta zein garaietan jolasten ziren (jolasek ere bai bait dute bere urtaroa, dirudienez).

Ezinezkoa da Ataunen sortutakoak zein diren jakitea. Gai honi buruz oso materiale gutxi argitaratu bait da eta gainera ez zen hori idazlearen helburua.

Irakurle gehienok liburu hau esku artean hartzen duzuenean gustora baino gustorago aurkituko zarete gure txikitako jolasak gogoratuz eta, noizbait edo egoeraren batetan zuen etxe-ko edo auzoko haurrek beren jostailu mekaniko eta sofistikatuekin jolasteaz asperturik daudela azaltzen dizuetenean, jolas hauek ezagutu eta erabil ditzatela. Jostailu erosle izateaz gain, sortzaile ere bihur daitezene.

Hori izango litzateke idazleak egin-dako lanari eman diezaiokgun eskerri onena.

Lutxi Ganzarain

«Ataungo aho hizkuntzaren
barne muinak» (I eta II)

J. Arin-J. Arruabarrena

Antropologiaren Euskal Bilduma
«Kriselu», Donostia 1989

Ahozko hizkuntzaren murrizketa eta honek dakarkigun tradizio, bizi-modu eta abarren ezagutzaren galera kontutan hartuz, eta abiapuntu modura, liburu hauek helburu interesgarri eta premiazoak finkatzen dituzte. Alderdi txar horien eragina —geroz eta hizkuntza motelago eta hilagoa, erabilerarena, esate batera— gainditu nahian, datu ugari eta ondorio sakon hauek argitaratu dituzte.

J. Arin eta J. Arruabarrenak eskoletan sarri gertatzen den herriko hizkeraren galerari aurre egin nahirik ibili dira. Beraien hitzetan, «Euskara estandarizatu hau irakurtzen eta idazten hasten direnetik pausoz pauso lantzen joango gara, baina herrikoa inolaz ahaztu gabe».

Ondo loturik agertzen diren zati argi batzuen bidez aurkeztu dute azterketa. Ataungo euskararen berezitasuna mantendu nahi izan dute beren berriemileen hitzetan, baina guztion errezasunerako argitu dituzte beraren ezaugarriak.

Aho hizkeraren azterketan hainbat azpisail egin dituzte: Esaera zaharrak, hizkerako zebait elementu, burla koplak, kortesia formulak, elkarrizketa errimatuak eta arlo bakoitzari, datuez gain, sarrera eta ondorioak itsasi dizkiote, azterketa literario orokor batekin amaitzen dutelarik gero.

Ahozko tradizioaren aberastasuna jasotzen digute bi liburu argi eta bitxi hauen bidez. Zenbaitentzat altxor aproposa bere herriko hizkera eta honek dakarren munduko ikuspegia ezagutzeko eta lantzeko, beste edonorentzat, berriz, bere herrian antzekoren bat egiteko lehen urratsa.

Jose Manuel Mata



Izen propialak

Beasain 35 urte. Bilbon Arte Ederrak ikasi zuen. Komikian jardun aurretik margo erakusketa batzuk. Marrazki irakaslea. HABE KOMIKI-en istorio labur batzuk eta «HERMES» albuma Gregorio Muro Harriet-en giorarekin publikatzen ditu. Egun. Glenat frantziar argitaletxearen «VECU» aldizkarian parte hartzen du «LA SUEUR DU SOLEIL» sorta marraztuz, giorlan berdinarekin, zenbait hernaldeen publikatutak eta HABE euskeraz argitaratuz «EGUZKIAREN IZERDIA» izenburuarekin.

Gomendagarria beraz edozein goierritarrentzat eta bide batez edozein euskaldunentzat.

M. Ormazabal
M. J. Etxeberria

«Euskal Toponimiazko
Materialeak» (III eta IV tomoak)
Mujika, Luis Mari
Gipuzkoako Foru Aldundia. 1990.

Goierriko tokien izenei dagozkion bi liburukote mardulez eman dio Luis M^a Mujikak jarraipena bere «Euskal Toponimiazko Materialeak» izeneko lanari. III. alean Gipuzkoako hegoaldeko herrietako baserri, mendi, erreka, zelai, eta abarren izenak jasotzen dira, hau da, Abaltzikota, Gaintza, Orendain, Ikaztegieta, Legorreta, Baliarrain, Itsasondo, Altzaga, Arama eta Ordiziakoak. IV. alean berriz Zaldibi, Lazkao, Olaberri, Beasain eta Idiazabalgoak.

Berebiziko garrantzia du honenbeste aldatzen den bizimoduan eta abelkuntza, lurgintza, artesautza eta artzantza, konparazio batera, amilka lur jotzen ari diren momentuan halako bilketarik egitea eta hain urte gutxitan harrapalada batean aldatzen ari diren toki izenak jasotzea. Izan ere, pinudiek estali dituzten pagadi, otadi eta halako hainbeste tokiren desagerketarekin batera izenak ahaztea oso normal delako, eta horrekin gure kultur-ondararik galtzea.

Lan horretarako Mujikak XV. mendetik honantz artxiboetan jaso izan den mendi, baserri, malda, lurtsail, borda, artegi, iturri, bide, ermita, eta abarren izendegia osatu du. Artxibo-lanen lagungarri erabili izan ditu informatzaileak ere, baina hauen egin-kizuna nagusiki artxiboetan agertzen ziren tokizenen zehaztapenak ematea izan da. Geratzen da bada, oraindik, honen atzetik majina bat lan, herrietan ahozko tradizioari lotuta dirautenak, askotan hitzetik paperera ez direnak jasotzen. Eta Luis Mari Mujikaren lan berri honek ez digu aukera kaskarra eskeintzen abiapuntu sendo gisara.

Honelako lanak irakurtzeko ohiturarik ez duenarentzat nekagarri gerta liteke liburuak goitik behera miatzea. Baina ez da zalantzarik norbere herrikoak irakurtzen egundoko grina sentitzen dela, garai bateko pasadizoak biltzen bait ditu liburuak: halako baserrikoak halako urtetan diru-laguntza truke etxea hipotekatuko zutela, edo beste mila moduko bitxikeria.

Oso liburu gomendagarria, Goierriko liburutegietan ezezik norbere etxean eduki eta irakurtzeko eta geure herrietako historiara gerturatzeko.

Maite Erauskin

HITZAK NAHAS-MAHAS

Lauki haundian zazpi hitz daude gorderik, hizki ar-
tean. Hitzak diagonalean, goitik behera, behetik gora,
ezkerretik eskuinera, eskuinetik ezkerrera, etab. egon
daitezke idatzia.

Gipuzkoako zazpi mendi ezagun

N O I B R E E Z I A B O
A O N L A K E T E G I S
G Z E A K A L I E D N T
A T R R I A G A N E G E
I I E R N I O E I G A A
D A M U R T M R K N I N
N L R N U O E T O E K G
A A U A G E N O P D O O
I D A R E N D B E O E Z
R U O R S E I O T A A O
R G T I Z A R R A I T Z
A U Z T U R B I D E K O


Bizkaiko zazpi mendi ezagun

P I G A L I N R I U S A
E O M K O M E R O L S I
A L L U I T Z T I U L A
J O T K G E O P I A R I
E R P I R A N R D I K E
B P K T A N R E S E N I
E R O O U I A R O B A T
H E R N L O N N A R I B
A S E A I Z B O R O N O
R E G R E Z O T T G I N
K I T E R E T T T O T Z
O R A N A R O T A T Z O

Euskal Herriko zazpi mendi ezagun

A Z A D O S N A G O N I
G A O L O E A P A T U Z
A D L A P I R R T S R E
S O R A I D A I K O R E
I S A K I N R I K R A T
P I G E T E K A U S T E
R A H I A M B A B M U D
L O I R N A K R A U N L
E B A K O Z O Z O K O A
E T O R E T O R I G U H
Z U G A R R A M U R D I
A O H N I A R R A S T O

HIEROGLIFIKOA



Eup!

«Enbido»tik hartua «Elkar»-en baimenarekin



Osasunaz

Gaitz hau sendabide errazekoa da

Hipertentsio arteriala

Hipertentsio arteriala (HTA) da, beharbada, herrialde aurreratuaren osa-
sun alorreko gaitzik nagusienetakoa. Jende askok nozitzen du, batzuetan ez
dago gorputzean gaitzaren aztarnarik, aztertzeke ez da zaila, eta, normalean,
sendabide erraza du. Baina behar be-
zala heltzen ez bazaio heriotza ere
ekar lezake. Ehuneko 90ean ez da
ezagutzen gaitz honen zergatia.

Baina zer da HTA? Tentsio arterial
altua 140 milimetro merkurio (mm-
Hg) baino gehiagokoa bada, eta ba-
xuak 90 mmHg-tik gora egiten badu,
eta hau behin baino gehiagotan segi-
dan gertatzen bada, HTA dagoela esa-
ten da.

Gaitza gurasoengandik seme-ala-
bengana dator. Baina hori ez da nahi-
koa. Inguruko ohiturek ere badute ze-
rikusia, eta, esaterako, gatza gehitxo
jatea ez da ona.

Noiz sortzen da gaitza?

1. Giltzurdinaren behar bezain ondo ez
ibiltzeagatik renina izeneko sustantzia
gehiagi sortzean. Renina horrek
—baita adrenalina ere— tentsioa han-
ditzeko joera du. Gorputzean gatza
geratzea ez da ona.
2. Giltzurdinen gainean dauden glan-
dula jakin batzuk gorputzeko zenbait
sustantzia, adrenalina esaterako, isur-
tzen dute. Glandula horiek hondatuta
badaude adrenalina gehiagi sortzen
dute.
3. Antisorgailuak erabiltzea ere kalte-
garria izan daiteke batzuetan.

4. Aorta izeneko arteria leku jakin ba-
tetan beharko lukeen baino estuagoa
bada, kontuz!

HTAren ondorioak

1. Bihotzak gehiago eta indartsuago
lan egin behar du odola arteriatara bi-
daltzeko. Eta bihotza gehiagi nekatuz
gero, herioak joko digu aldaba.
2. Neuronatan eragina: bista gutxitzea
gerta liteke, burukomina izatea, bur-
muineko odoljariora...
3. Giltzurdina izorratzea gaitzaren on-
dorio izan liteke, baina baita sortzaile
ere.

Nola sendatu?

Medikuak erabakiko du botikarik
hartu behar den ala ez. Badira esatera-
ko, txisa egin erazten duten botikak.
Txisa egitea ona da gaitza sendatzeko
edo lasaitzeko.

HTA larria dutenek botika premia
dute. Baina botikak hartu aurretik bes-
telako neurrien beharra dute. Esatera-
ko, pisuari begiratu, eguneko 2.000
kilokaloria jan gutxi gorabehera,
—emakumeak gutxiago—, ez hain-
beste alkohol eta tabako hartu, ez
hainbeste kolesterol eta animali-grasa
irentsi, kirola egitea ere komenigarria
da... HTA larria ez dutenek ez dute
botika beharrik, aipatutako bestelako
neurri horiek kontutan izan, eta listo.

Josune Oiarbide (Medikua)

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. Goierriko euskaldunon aldizkaria.

tti-pi-tta-pa



Chrisler»

1932. Nikolas Lekuona

- Hau ere ba al diagu?!
- Etxeberriatarrak ezin al dute letu ba Goierritarra?
- Auskalo ze sail ari diren letzen!

Zine kritika sobrare, hor ari du hoietako bat sarrerak ateratzen-eta!



AZ

 **tarjeta 6000**

Tarjeta 24

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ►

GK TXARTELA

• • • • • • • • • • • • • • • •

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutzaren
GK Txartela eraman behar
da aldean, eguneraturik
egoteko.

Gipuzkoako Kutzaren
Kutxazain Automatikoetan
erabateko erosotasunez
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez
baliatzeko.

Era automatizatuan eta
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**